

Herririk Herri |4|

Azokak "krisiari eutsi" egin deustala nabarmendu dau Gerediagak

Ekonomia |10|

Fumbarriko beharginek negoziatutako EREa aldarrikatzen dihardue



Berbaz |9|

Santiago Reyes: "Merkatari txikiak batzeko irudi-marka sortu gura dogu"

Tren geltoki barria egitea aztertzen dabil ETS

Zaldibar • Zaldibar eta Ermua arteko trenbidearen bikoizketa ren azterketa informatiboan Zaldibarren eta Ermuan tren geltoki barri bana eraikitzea aurreikusit dabe. Urte amaieran argitaratuko ei dau txostena ETSk.

2

'Irla izan' disko barria aurkeztu deusku Anarik

KULTURA • Durangoko Liburu eta Disko Azokaren nobedadeetako bat izan den 'Irla izan' diskoa aurkeztera etorriko da Anari abenduaren 18an Plateruenera. Bera-gaz elkarrizketa izan dogu.

13



300 gaztetxo batuko dira judo txapelketan

KIROLA • Durangoko Judo Taldeak Durango Uria Nazioarteko Judo Txapelketa antolatu dau hilaren 20rako. Lagun arteko kirola sustatzeko asmoz, Frantzia, Girona eta Zaragozatik, besteak beste, 300 bat gaztetxo batuko ditue Landakon.

24

•Berriz

Euskara hamar lagunetik hiruk erabiltzen dau kalean

5

•Elorrio

Baztertuta zeukien AHTaren proiektua jaso dau Udalak

5

•Otxandio

Azoka antolatu dau Kementsu elkarteak domekarako

5

•Iurreta

Ortu ekologikoen lanak aurten emongo ditu Udalak

7

Mediku aldaketekin kexu dira abadiñarrak

> Osakidetza urtarilerara arte geldiarazi ditu Zelaietan eta Matienan iragarritako aldaketak

> Medikuek paziente larregi daukiela-eta, zerbitzua zelan aldatu aztertzen dabilz

3



Abadiñoako bizilagunek mediku zerbitzua Zelaietan mantentzea gura dabe. Kepa Aginako



Sagasta auzoa • Anbe Goikoa
48220 ABADIÑO • Bizkaia
Tel.: 629 143 944
IBAI URIEN

APAINGARRIA ETA INDUSTRIALA

- Fatxadetarako proiektu bereziak (inpermeabilizazioak, barnizatuak, ...)
- Era guztietako barne eta kanpoko dekorazioak (lokalak, tabernak, etxebizitzak, ...)

HERRIRIK HERRI >

ZALDIBAR

Geltoki barria egitea aztergai dau Trenbide Sareak

Zaldibar-Ermua trenbide zatia bibidertzeko lanekin lotuta burutuko leukie geltokiaren barriztea

Zaldibar eta Ermua trenbide zatia bikoizteko lanen inguruan Eusko Trenbide Sareak egiten diharduen azterketa informatiboan jasotzen da Zaldibarko eta Ermuko tren geltokiak barriztatzea. Urtea amaitu orduko argitara emongo daben azterketa informatiboaren txostenean jasotzen dabe Eusko Trenbide Sareak erakundeko teknikariek Zaldibar eta Ermuan geltoki barriak egiteko aukera, eta baita Mallabian tren-geltokia egitea be.

Urtebetez prestatzen jardun daben azterketan jaso dabe Zaldibarko tren geltokia barrizteko aukera

Hamabi hilabetez prestatzen jardun daben azterketaren txostena (600.000 euroko aurrekontua izan dauena), urtea amaitu orduko argitaratuko dabela azaldu deusku asteon Eusko Trenbide Sareak erakundeko ordezkariak.

Trenbidea bibidertzeko egingo ditueen lanekin lotuta, Ermua eta Zaldibarren tren geltoki barria egitea aztertzen dabilz

Alegazinoetarako epea zabaldu eta proiektuak ingurumenean izango leuken eraginaren azterketa egin eta gero ekingo deusie geltoki barriaren eraikuntza proiektua osatzeari. ■ I.E.



Laster argitaratuko dabe Zaldibar-Ermua tarteko txostena. I.E.

Ane Miren Alberdiri omenaldia

Herritar guztiak gonbidatu ditue Helmuga emakume taldeak bulztatu eta antolatuta dauen abenduaren 19ko Ane Miren Alberdi arku-tiralari zaldibartarraren omenaldia. 12:30ean, Udaletxeko plazan aureskua eta ondoren batzar aretoan Helmuga emakume taldeko ordezkariaren eta bere entrenatzailearen berbaldi laburra izango da, Europako txapeladunordea den Alberdiren kirol ibilbidea goraiatuz.

Abenduaren 19an, 12:30ean, Udaletxeko plazan hasiko ditue omenaldiko ekintzak

Omenaldi eguna amaitzeko, luntxa izango da Udaletxeko sarreran. Herrikideek Txotxongilo aisialdi taldean aritutako Ane Miren Alberdi gazteari deusien maitasunaren isla izango da abenduaren 19rako Helmugak antolatu dauen omenaldia. ■ I.E.

duran...go!
goazen!

GABONAK

2009 - 2010

ABENDUAREN 24a

17:00 TXOKOLATADA, B. E. Musika Eskolan
18:00 KALEJIRA OLENTZERO ETA MARI
DOMINGINEKIN, Landako Gunean
19:00 OLENTZERO ETAMARI DOMINGINI
HARRERA, Landako Gunean

 DURANGO
Udala - Ayuntamiento

ZORIONAK!



ABADIÑO

Pierburg enpresa alboko lursaila, eraikuntzarako

Matiena auzoan dagoen Pierburg enpresaren aldameneko lursailaren berkalifikazioa egitea onartu eban, joan zen hileko udalbatzarrean, Talde Independenteko eta EAJko zinegotziek. Orain arte industriara bideratzeko izendatuta zegoen lur saila urbanizagarri izendatzea proposatu eta onartu eban bozketan.

Neurriaren kontrako eritzia adierazi eta proposamenaren kontra bozkatu eban ezker abertzaleko zinegotziek: teknikariek azterketa barik halako neurriak hartzeak "promotoreen interesen arabera aritzea" ekarri leikeela adierazi eban Basauri zinegotziak.

Erabakiaren oinarrian "erizpide tekniko ez, politikoa" behar dela erantzun eta alde bozkatu eban, Talde Independentegaz bat, aldaketa ahalbideratuz Axier Garate zinegotzi jeltzaleak. ■ I.E.

Berkalifikatu dabena 11.000 metro karratu inguruko Matienako lursail bat da

Urtarrilera arte geldiarazi ditu Osakidetzak aldaketak

Zelaieta eta Matienako erabiltzaileei iragarritako mediku aldaketak urtarrilera arte bertan behera itziko dituela jakinarazi dau Osakidetzak

Mediku zerbitzua aurrerantzean Matienako Osasun Zentroan jasoko dabela jakinaraziz hainbat herritarrek Osakidetzatik jaso eban gutunak zehaztutako aldaketak urtarrilera arte ez direla gauzatuko jakinarazi deuto Osakidetzak, asteon alkateak azaldu dauenez.

Gehienezko mediku bakoitzeko 1.500 gaixoren muga gaindituta, herriko bi zentroetan birmoldaketa egiteko aurreikuspena izan dau osasun zerbitzuak: auzoetako zenbait herritar Matienako zentrorra bideratzeko eta zerbitzua Matienan jasotzen ebenerariko batzuei medikua aldatzeko asmoa zeukan Osakidetzak.

Aldaketagaitiko herritarren protestak eta alkatearen kezka ezagututa, aurreikusitako aldaketa, urtarrilera arte behintzat, bertan behera iztea erabaki dau Osasun zerbitzu publikoak.

Auzoetako herritarrek orain aste biko udalbatzarrean helarazi eutsen egonezina ezagutu eta hurrengo egunean Osakidetzagaz hartu-emonetan ipini eta egoera azaldu eutsela azaldu deusku Talde Independenteko alkateak. Ondorioz, gaia berrikusi eta beste proposamen bat daukie-

Mediku bakoitzak 1.500 pazienteko muga ez gainditzeko zelan birmoldatu aztertzen dabil Osakidetzak

Urtarrilera arte beste neurririk ez dabela oraingoz hartuko adierazi deuto Osakidetzak Udalarari

nean Udalgaz batzarra egiteko asmoa agertu ei dau Osakidetzak. Helburua, alkatearen berbatan, arazoari konponbidea emoteko formularik egokiena bilatzea izango da, "herritarrek jasotzen daben osasun zerbitzua kaltetu barik".

Irtenbide posibleak

Irtenbide posible bat medikua arratsaldean Zelaletako zentroan egotea izan leitekela onartu dau alkateak, edo lanordu erdia Zelaletan eta beste erdia Matienan egingo dauen mediku barri bat ipintzea be aukera bat litzakela azpimarratu deusku.

Jeltzaleek, bestalde, ohar bidez salatu dabe zerbitzuaren hedapena Osakidetzagaz negoziatu ebanean, "matienarrei zerbitzua eskaintzeko eukan gogo bizian beste auzoak albo batera itzi eta ahaztu" zituela Talde Independentek. ■ I.E.

Adostasuna erreka bideratu beharraz

Ibaizabal erreka bideratzeko proiektua "2008tik kaxoi batean gordeta" dagoela eta, Uraren Euskal Agentziaren "itzikeria" salatzeko agerraldia egin eban Jose Luis Navarro alkateak orain aste bi. 2005etik blokeatuta dagoen herriko Arau Ordezkatzaileak aldatu ahal izateko baldintza da erreka bideratua egotea, Navarrok gogorazi dauenez.

Erreka bideratzeko beharra ikusten dabe jeltzaleek zein Talde Independentekoek

Talde Independenteko alkatearen berbei erantzunez, beste erakunde batzuei egotzen deusezela berak egin dituen akatsak salatu dau Abadiñoeko EAJK. Jeltzaleen berbatan, "alkatea eta independenteak azkenean ohar-tu dira erreka bideratzeko daukan garrantziaz", baina azpimarratzen dabenez, jeltzaleak alkatetzan eta eurak oposizioan zegoenez "bestelako jarrera zeukien Independentek".

Informazio panela ipini dabe Matienan

Bizkaiko Aldundiak Matienan burutu dituen errepideko lanekin batera ipini dabe udal informazioa zabaltzeko funtzinoa izango dauen panela, Aldundiak finantzatutakoa. Panelak kudeatzen Udalak jardun dau ordutik, eta, alkatearen berbatan jaso dogunez, oso sistema erabilgarria ikusten dabelako, Muntzaratz eta Zelaieta auzoetan be halako panel bana ipintzeko asmoa dauka Udalak.

Herritar guztiei bat-bateko informazioa zabaltzeko eta Udalaren webgunea erabiltzeko ohiturarik ez daukientzako informaziorako aukera moduan ikusten ditue panelak Udalean. Kanean oinez dabilzenentzat askotariko deialdiak jaso eta udal informazioa zabaltzeko funtzinoa izango dabe Matienakoak legez, Zelaieta eta Muntzaratzekoak be.



Deialdiak eta infomazinoa zabaltzeko aproposa da panela.

MAÑARIA

Erdira jaitsi dabe kultur ekintzen aurrekontua

Datorren urterako Udalaren aurrekontu orokorrean onartu dabengastu murrizketaren ondorio legez aurkeztu dau Udalak orain arte antolatzen zituen hainbat ekitaldi desagertzea. Aurten goagaz alderatuta, erdia izango da Mañarian kultur ekitaldiak antolatzeko 2010ean izango daben aurrekontua.

Horrela, ohitura bihurtu diren hiru ekitaldi datorren urtean ez ditueela burutuko jakinarazi dabe: azken urteetan uztaileko bi astetan zehar herriko umeei zuzenduta antolatzen eban udako kanpamendua, herriko ondareari buruzko jardunaldiak eta azken bi urteetan Udalak antolatu dituen organo kontzertuak ez ditue egingo. ■ I.E.

MALLABIA

Abesbatzaren Gabonetako ikuskizuna

Jasokunde eta Mendibil abesbatzek ikuskizuna eskainiko dabe abenduaren 19an, zapatuan, arratsaldeko 19:00etan, herriko pilotalekuan. Iratxe Uribelarreen zuzendaritzapean, Gabonetako abestiak kantatu eta Olenzeroren inguruan girotutako *Amama Inaxiren ipuina* antzetzuko dabe, ordu bete inguruko ikuskizunean. Umeeke be zuzenean parte hartuko dabe, izan be, egun horretan Olenzerok umeen eskutitzak jasoko ditu, gero, Gabon egunean ikazkina herri-atorrenean, opariak banatu daizen.

Gabon eguneko opari banatzea arratsaldeko 19:00etan izango da. Ondoren pintxo bana banatuko dabe. ■ A.B.

GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

HARATEGI

ARTISAU ERARA

ESPEZIALIZATUA

FUSKO-LABEL

Antso Estegiz, 1

946 812 247

48200 DURANGO

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

DURANGO



Bost egunotan Azoka "erosotasunez" bisitatzeko aukera izan dabe bertaratutakoek. T. Angoitia

Azokak "krisiari eutsi" deutso Gerediagak azaldu dauenez

Inoiz baino ekitaldi gehiago batu ditu 44. Euskal Liburu eta Disko Azokak

Inoiz baino ekitaldi gehiago batu dituen 44. Euskal Liburu eta Disko Azokak "krisiari eutsi" deutso. Halan nabarmendu dau Gerediagak elkarteak. Bost egun izanik, "erosotasunez" bisitatzeko aukera egon da, ganera; astelehenean, baina, "gainezka" egon zen Landako.

Erakustazokak 292 stand batu ditu aurretik; 156 argitaletxe, diskete eta bestelako parte-hartzeagaz. Horrez gainera, makina

Durangoko Azokak 292 stand batu ditu, 156 argitaletxe, diskete eta bestelako parte-hartzeagaz

bat ekitaldi be eratu dira Elkartegian, Haur Literatur Aretoan (17), Aurkezpen Aretoan (49) eta Aho-tsenean (45). Azken hori nabarmendu dabe antolatzaileek: "Sortzaileentzat gune berezia lortu da, kontzertu eta poesia errezitaldiak zein liburu aurkezpenak hurbiletik hartzeko aukera eskainiz".

Formatu barriak be indarrez sartu dira; liburu digitala, kasurako. Azoka telebistaren estreinaldiak, barriz, harrera ona izan dau, parte-hartzaile askoren ustez "freskotasuna" eta "bizitasuna" emenez. Kultura katalana izan dabe gonbidatu, eta Institut Ramon Llull-eko Josep Bargalló "aurrerantzean be Azokan egoteko borondatea" ager-

tu dau; Espay Catalunya Topalekuak 2010eko saria Gerediagari emongo ei deutso, "katalanen kultura zabaltzen laguntzeagatik".

Euskal Denda

Arbasoren 14. Euskal Dendak, barriz, 17.220 bisitari batu ditu: "Bisitak %15 jaitsi arren, gure artisautzako erreferentzia finkatu da. Krisiak eragin dau, baina, gitxiago". Salmentak be "ondo" joan ei dira, igazko antzera. Bisitariak Garbi Xaboi Naturalen (Zegama) stand aukeratu dabe onentzat; Arbasok Eneko Unzalu Bitxiak (Durango). Galeusca erakusketak eta 'Artisau despistatua' jokoak izandako harrera nabarmendu dabe.

Juan Itziarkon irisgarritasuna hobetuko dabe

Juan Itziarko auzuneko hirigintza lanei aurre egiteko 2010erako aurrekontu-konpromisoa onartu dau Udalak. Zenbait urtetarako gastu lez bideratuko dabe. Aho batez onartu dabe.

40 urtetik gora dituen auzoaren "modernizazioari" heldu gura deusie lehenengo fasean jasotako lanekin. Irisgarritasuna hobetuko dabe; argiteria ez kutzakorra eta baranda barriak be jarriko ditue. Auzokoekin jardun dabe 226.000 bat euroko inbertsinoa eskatuko dauen egitasmoa lantzen —aurretik 178.000 euro zegoen lotuta—, eta, irisgarritasunari eta segurtasunari jagokezen "hobekuntzak" nabarmendu ditue udal taldeek, auzokoen parte hartzearen garrantzia ez eze. ■ A.B.

Udalak 40 urtetik gora daukazen auzunearen "modernizazio lanari" heldu gura deutso

Babesekoak sustatzeko besterentzea

Babeseko etxebizitzak sustatzea Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaiak Sailaren esku iztea onartu dabe. Horretara, bai Aramotzen (52) bai San Roken (143) babesekoak eraikitzeko egitasmoa bultzatu gura dabe. EAJ, PSE-EE, PP eta Aralarrek egin dabe alde.

Aramotzen 52 etxebizitza eraiki gura ditue, eta San Roken, barriz, 143

Talde Mistoak kontra egin dau, ikerketa sozio-demografiko bat behar dela eta "gitxiengo irtenbidea" izan arren, babesekoak "guztien etxebizitza eskubideak bermatzen" ez dituela eritzita. Aralarrek Aramotzen "behingoz" eraikitzen hastea eskatu dau, eta PSE-EE "pozik" agertu da egitasmoak "erralitate" bihurtuko direlako. Prozesu "luzea" eta "korapilotsua" izan dela aitortu dau EAJk, baina al bait arinen hasi gura dabela. ■ A.B.

PSE-EEren egoitza lekuz aldatzeko eskaria

Bost hilabete dira Astxiki kaleko Ieko sozialisten egoitzan lehergailu bat zartarazo ebela, kalte material handiak eraginez. Euren etxetatik irtenarazo be egin zitueen bizilagunak, gas ihesak sortutako arduragaitik; Herritarren Arretarako Zerbitzuan 20 bat erreklamazio jaso zitueen. Oraintsu, inguruko hainbat etxetan *Sederik ez* zinoen kartelak eskegi ditue; astea amaitu orduko hainbat kendu egin ditue.

Aralarrek PSE-EEri elkartasuna adierazo eta kartelok kentze-

ko eskatu dau, ohar batean. Ez deritze "bidezko", eta "eskubide politikoa erabiltzeko denen eskubidea" defendatu dau: "Gertaeron eragileei mehatxua itzi daien eskatu behar, biktimekin krudelkeriaz jokatzeko da; iraina bikotxa da". Uztailean sortu ziren kalteak al bait arinen konpontzea be eskatu deutso Udalarari. ■ A.B.

Aralarrek elkartasuna agertu dau, "guztien eskubide politikoa" defendatuz

ALBORDI
HARATEGIA HARATEGIA
DURANGO

Bertako okela

Aurretiaz prestatutako janariak
Deneriko CATERING zerbitzuak

Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO

Arriandi industrialdea
Tf: 94 681 44 00
48215 IURRETA/ Bizkaia

ALBORDI
Preko zinatua

JUAN BERISTAIN
NEKAZAL TRĒSNAK

Salmenta eta konponketa

Oidor Berriozabalbeitia, 14 • 48230 Elorrio (Bizkaia) • Tel.-Faxa: 94 623 18 03

HONDA
STIHL
SAME
BCS
VIKING

pasqualli



BERRIZ

Euskara hamar lagunetik hiruk erabiltzen dau kalean

Euskararen erabileraren inguruko neurketak itzitako ondorioak jakinarazi ditue

Soziolinguistika klusterrak kaleko euskararen erabileraren inguruko neurketa egin dau. Guztira, bost neurraldi egin ditue eta, batez be, Berrizko herriguneko ikastetxeetan eta *Kirolari ateak zabalik* ekimenean gauzatu dira. Guztira, 1.741 hiztuni jagokozen datuak jaso ditue (Berrizko biztanleriaren %37)

Emaitzen arabera, Berrizen euskararen kale erabilera %27,9koa da. Kalean neurtu ditueen 100 elkarrizketatik 28 entzun ditue euskaraz, 70 gaztelaniaz eta bi gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza batean. Bestalde, azterketa adinen

Guztira, 1.741 laguni jagokozen datuak jaso ditue; horrek herriko biztanleriaren %37 osatzen dau

Honako hau Berrizen egiten daberen bigarren neurketa da; 2001ean egin eben lehenengoa

arabera sailkatzerakoan, lau adin taldetan erabilera antzekoa jaso dabe: 2-14 urte arteko gaztetxeetan %30; 15-24 urte artekoan %26,4; 25-64 urte artekoan %25,1 eta adinekoetan %28,4.

Azterketa hau Berrizen egiten den bigarrena da. 2001ean neurraldi bi egin zitueen, eta orduko haretan auzoak be sartu zitueen azterketan. Neurketa biak egiteko diseinu ezberdina erabili daberen, erdiguneko datuei erreparaturaz gero, euskararen erabilerak gora egin dau: 2001ean %22,9koa zen eta 2009an %27,9koa. Bost puntu egin dau gora lehenengo neurketatik bigarrena. ■ J.D.

OTXANDIO

Buzkantz onena sarituko dabe etziko Azokan

Domekan, 09:00etatik 15:00ak arte, Baserri Produktuen Azoka egingo dabe herriko plazan. Aurten nobedade dezente dakaraz Kementsu kultur elkarteak antolatzen dauen ekimenak. Esaterako, I. Buzkantz Txapelketa antolatu dabe. Partehartzaileek gaur aurkeztuko ditue buzkantzak eta domekan plazan batutako epaimahaiak erabakiko dau zein saritu. Ondoren, buzkantzak pintxotan salduko ditue.

Beste barritasunetako bat ardien ile-moztaileen erakustaldia izango da. Ardi ile-moztaile bik jardungo dabe, 11:30ean eta 13:00etan, ofizioa erakusten.

Laudiotik etorrira, larrua zelan lantzen den erakutsiko dabe plazan egokituko daberen stand batean

Ardien ile-moztaileek euren ofizioa erakutsiko dabe 11:30ean eta 13:00etan

Gainerakoan, baserriko produktuei emoniko 36 stand egokituko ditue plazan. Aurten, Laudio-ko lagun batzuk ipinitako standean, larrua zelan landu erakutsiko dabe; gaztetxeok parte hartzeko aukera be izango dabe. Azkenik, goiz osoan zehar trikiti soinuak girotuko dau plaza ingurua. ■ J.D.

ELORRIO

Baztertutzat zeukien AHTaren hasierako proiektua jaso dabe

Halan be, ibilbide alternatiboko aktak sinatzera deitu zitueen lur-jabeak

ADIFek orain urte asko AHTaren Elorrioko tramurako diseinatu eban lehenengo ibilbidea jaso dabe Elorrioko Udalean. "Aspaldi bazterturik" uste eban ibilbidea Atxondoko Udalak be jaso dau oraintsu. Sasoi batean, "kalte gitxiago" eragingo ebala argudiatuz, ibilbide alternatiboa proposatu eutsan Udalak ADIFI. Orduan ADIFek bien arteko hiru garren alternatiba bat onetsi eban, eta orain arte azken ibilbide hori izan da oinarri legez hartutakoa.

Ibilbidea zergaitik aldatu daberen "ideiarik be ez daukagu", salatu dau Niko Moreno alkateak: "Guk sasoi batean zera alegatu genduen; hirugarren alternatibagaz be lurralde-plan sektoriala ez ebela betetzen, guk proposatutakoak balio bera zeukala ikusarazi guran. Ez dakigu horregaitik den edo zergaitik, hasierako alternatibara itzuli dira".

Halan be, ADIFek erdibideko alternatibako aktak sinatzera deitu ditue oraintsu 90 lur-jabe. Gobernu zibileko ordezkariak etorri zen, baina Elorrioko alkatea ez zen azaldu Udaletxera, eta

Hasierako alternatibak baserri bi botatzea aurreikusten dauela dinoe



AHT GELditu! Elkarlanak protesta egin eban sinaketa egunean.

akten sinatzea bertan behera geratu zen. Ez dakie hurrengo deialdia Elorrioren edo Bilbon izango den; Atxondokoak Bilbon egin zitueen. Lehenengo alternatibaren eta erdibidekoaren artean 50 bat metroko tartea dago eta, "baserri bi botatzea eragingo leuke", Morenok azaldu dauenez. ■ J.D.

GARAI

Gaztaña Erreen Eguna ospatuko dabe bihar

Zapatu honetarako Gaztaña Erreen Eguna antolatu dabe Garain, Udalaren ekimenez. Pilotalekuan burutuko dabe ekitaldia.

Arratsaldeko 17:30ean hasiko da gaztainagaz loturiko ospakizun egun hori. Herritar guztiak gonbidatu ditue Udalak jaian parte hartzera; halan be, "batez be umeei begira" antolatzen dabela adierazi deuskue udal ordezkariak.

Bestalde, Gabon inguruko kontuekin jarraituz, Olentzeroren kalejira egingo dabe Garain, abenduaren 24an. Etxez etxe joango da ikazkin ospetsua, traktore baten gainean. Horregaz batera, ohiturazko turroia banatuko dau Olentzerok. ■ M.O.

Kainaberaren musika jaialdia hilaren 20an

Kolonbian garatzen dabileren bi proiekturi laguntzeko helburua izango dau aurten Kainabera GKEaren Elkartasun Jaialdiak. Urtero-urtero Elorrioko ikastetxe, koru, dantza talde eta hainbat musikaririk parte hartzen dabe jaialdi horretan. Aurtengoa abenduaren 20an izango da, Arriolan, eguerdiko 12:00etan.

Osasun arazoak daukiezen umeen inguruko proiektu biren informazioa emongo dau Kainaberak jaialdian, eta batutako dirua proiektuotara bideratuko dabe. Batean arazo psikiko eta fisikoak daukiezen umeen erreabilitazioan dabiz; bestean, minbizia daukien umeei eta euren familiei laguntzen jake euren bizi-kalitatea hobea izan daiten. Komunitateko lanagaz aurrera doazen ekimenak dira.

Bestalde, hilaren 21etik urtarriaren 4ra, janari eta jostailu bilketa egingo dau Kainaberak. Berriotxo kalean izango da, Outleta egoten den lekuan, eta batutakoa Perura bialduko dabe, Acobamba eskualdera.



MOMOTXO TABERNA

Plateruen plaza, 12
Tel.: 94 681 10 06 DURANGO



Baserritarren eta
Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa
48200 IURRETA

Tf.: 946 205 187
Faxa: 946 205 194

anboto, durangaldeko astekaria

Egin zaitez harpidedun



durangaldeko
bherriak
ezagutzeko


harpidedun egiteko, deitu
94 681 65 58 telefonora edo
harpidedun@anboto.org-ra
zure izen-abizen eta helbidea bidali

DURANGOKO ZEIN TOKITAN JARTZEN DUTE GABONETAKO IZOTZ GUNEA?

Saria: ZOO ZOROA 5 ale + ARMIX KART cd-room 5 ale



www.elhuyar.org/zoozoroa



www.elhuyar.org/armixkart

Bidali zure erantzuna
astekaria@anboto.org
emailera edo ondoko
helbide honetara:
Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta





IZURTZA

Eliza ingurua atontzeko lanetan otsailera arte

Urte hasierara arte luzatuko diren lanak dira San Nikolas elizaren inguruan egiten dabilzenak



Lanen ondorioz, hesituta dago San Nikolas elizpea. I.E.

San Nikolas elizaren ingurua urbanizatu eta parke moduan egokitzeko helburua daukien lanak burutzen dihardue azken asteetan.

Udalak eta Bizkaiko Elizbarrutiak ikasturte hasieran lortu eben akordioaren ondoren ekin deutsee lanei. Hain zuzen be, Bizkaiko Elizbarrutiagaz bere jabetzako zen lursaila lagatzeko adostasuna lortzeko zailtasunek ekarri eben lanen hasiera atzeratzea.

Guztira, 200.000 euro inguruko aurrekontua daukan proiektua da 2010 urte hasierarako amaitzea itxaroten daben hau. Lanak amaitzen direnean, elizaren aurrealde eta atzealdea, eta BI-623 errepide-

rako sarbidea be egokituta egongo dira. Lanak finantzatzeko baliatu daben diru-laguntzaren baldintzetako bat lanak ordurako amaitzea izanik, otsailean amaitzea itxaroten dabe.

Elizaren ingurua urbanizatu eta BI-623 errepiderako sarbidea atontzea helburu daben lanak egiten dabilz

Lanak burutzeko Udalak jaso dauen diru-laguntzak zehazten dauen legez, lanak otsailerako amaitzea itxaroten dabe

ATXONDO

Datorren urterako udal aurrekontuak eztabaidagai

Datorren urterako Udalaren aurrekontua eztabaidatzeko deitutako udalbatzarrean, gastua murriztea jasotzen dauen proposamena egingo dau Gobernuak: Udalak jasotzen dituen diru-laguntzen bidezko sarreretan murrizketa nabariak izango direlako proposatuko dabe aurrekontuaren kopuruak

gitxitzea, ezker abertzaleko alkateak dinonez. Abenduko udalbatzarrean onartzea itxaroten daben 2010erako aurrekontuan, aurtengoagaz konparatuta murrizketa nabarmenena inbertsinoetan gertatuko dela iragarri deusku Cobos alkateak. 2010erako zeintzuk inbertsino diren beharrezkoenak

IURRETA

Ortu ekologikoen lanak aurtan emongo ditue

Ortu ekologikoen egitasmoaren baitan 40 ortu inguru egokitu gura ditu Udalak Itur-Buru inguruan, eta lanak abenduan emongo ditue. Lekua atontzen otsailean hastea aurreikusitako Inñaki Totorikaguena alkateak, eta, aintzat hartu ez diren zenbait gasturi aurre egiteko —obra zuzendaritza, segurtasun eta osasun arloko neurriak eta bestelako desfaseak— kreditu aldarazpena be onartu dabe: 150.000 euro zeukiezen lotuta eta beste 15.000 euroko aldarazpena onartu dabe. Halan be, abian jarri orduko udal ordenantza osatu beharko dabe.

Itur-Buru inguruan 40 ortu ekologiko atontzeko lanak otsailean hastea aurreikusitako dabe udal arduradunek

15.000 euroko aldarazpena gehitu deusie 150.000 euroko aurrekontuari

Urkiola landa garapenerako elkarteak sustatutako ekimenaren parte dira Atxondo, Elorrio, Zaldibar, Abadiño eta Berriz be. Azken biok nahiko aurreratuta doazela eta, uda bueltan egitasmoa abiatzea izango dabela uste dau lurretako alkateak.

Dirua konpromiso "larriago" eta "beharrezkoagoetara" bideratu beharko litzatekela dino PPK. EAJk, barriz, "onurak" gogoratu ditu. EB-Berdeek orain arteko babesa mantendu dabe, eta PSE-EEK dino egitasmoa "aztertzeke denpora barik" jaso dabela; aurrekontua egonda, aldarazpena ez dabe ulertzen. ■ A.B.

Urkiola landa garapenak sustatuta, Atxondok, Berrizek, Abadiñok, Elorriok eta Zaldibarrek be badihardue

erabakitzeke, azken asteetan Agenda 21eko batzarrak baliatu ei ditue: batzarretan parte hartu daben atxondarrek beharrezkoen jo ditueenak; Osasun zentroa barriztea eta posta bulego lekualdatzea, autobus geltokia eta markesinak eta proiektuan dagozen etxebizitza sozialak dira. ■ I.E.

Alkateak iragarri dauenez, inbertsinoetan nabaritutako da gehien diru murrizketa

DURANGO

Minbiziaren aurka urteko diru-biltzea egingo dabe, etzi

Urteko diru-biltzea egingo dau Minbiziaren Aurkako Elkarteke Durangoko batzordeak domekan. Minbiziaren Aurkako Nazinoarteko Egunagaz bat eginda egingo dabe eskea. Halan be, Minbiziaren Aurkako Elkarteak uriko komertzioetara jo izan dauen arren laguntza ekonomiko bila, igaz egin lez eta "krisi ekonomiko egoera dela eta", aurtan be ez dira bertotik pasako. Beraz, abenduaren 18an be, hiru mahai jarriko ditue: Santa Maria, Santa Ana eta San Fausto elizetan, hain zuzen be. Batutako dirua Minbiziaren Prebentzio eta Formazio kanpainetara, gaixo eta senideei laguntza psiko-soziala eskaintzera eta ikerketara bideratuko dabe.

"Izurri" bihurtu leiteken usoen arazoa konpontzea gura dabe

"Izurrite" bilakatzeko bidean den usoen "arazoari" irtenbidea topatzeko Udala lanean hasi daiten gura dau Durangoko Alde Zaharra (DAZ) elkarteak, eta, horretarako, sinadurak batu ditue. "Kezkagarria" deritxoe azken urteko uso kopuruaren igoerari, eta "teilatua, teilatuarate eta zabalik aurkitutako tarteeetan habiak" egiten ditueela azaldu dabe, hainbat arazo sortuz; "tartean higie eta osasun arazoak". Azaroan 15 bizilagun-komunitate batu ziren egoera aztertzeke: "Arazo isolatua ez zela ikusi genduen; askok eta askok laguntza eskatuz idatzia helerazi genduela Udalera, eta Udalak erantzukizuna saihestu ebal".

Erretako etxea botako dabe



Durangoko Udala

Bota egingo dabe azaroan erretako Intxaurren 6ko eraikina, udal teknikariek egindako txosten teknikoaz ezagutu ondoren. Bestalde, alboan dagoen Intxaurren 4 eta 8ko ugazabek —sutearen eraginez atera egin zitueen— ezingo dabe bueltatu, "segurtasun orokorra" bermatu arte. Sutea sortu zenean segurtasun neurri lez Intxaurren eta Santanoste kaleak itxi egin zitueen, eta neurri hori lehengoan mantendu dabe egoera kontrolpean dagoela ziurtatu bitartean. Su hartzean 72 urteko emakume bat —erietxera eroan eben kea arnastu ebal— eta haren semea zegozen eraikinean.

IURRETA

Herriari buruzko DVDa kalean

Herriaren 2008 eta 2009 urteetako argazki batean legez, Iurretan gaur egun denaren alderdi desbardinak biltzen dituen 'Iurretan barne-barnetik' DVDa kaleratu dau Udalak. Iurretaren ekonomia jarduera, ohitura zein historia eta gizarteari buruzko irudien bilduma da, Udalaren enkarguz eta 13.000 euroko aurrekontuagaz, Galdare komunikazio taldeak ekoitzi dauen 'Iurretan barne-barnetik'. "Batez be, kanpora begira, baina baita herriara datozen biztanle barriei zein gainerako guztien artean herria ezagutzera emoteko helburuagaz", hasi ei ziren orain urte bi ideia hori lantzen. Herriko elkartei doan zabalduko deutsee kopia bana, eta herriko ikastetxeetan zein Ibarretxe kultur etxean be eskuragarri izango da, jakin eragin dabenez.

DURANGOKO AZOKA 09



BERBAZ >

“Ez gara konpetentziaren beldur, baldintza bardinetan jokatzeko badogu”

Hainbat merkatarik elkartu dira asteon Plateruenean +Dendak elkarteak antolatu dauen 25. urteurreneko jaietan



Santiago Reyes •

- +Dendakeko gerentea
- Durangarra

teko. Hurrengo urteetan ildo horreetan lan egingo dogu.

TAOari zer deritzozue elkartean? Dena bere neurrian hartu behar da bizitzan, eta TAOa be bai. Inguru zehatz batzuetan beharrezkoa dela uste dogu, baina, sortu zenetik, zonalde batzuetan gehiegizkoa delakoan gagoz. Arazoa sortu dau lehenago ez zegoen lekuetan. Arazoa Iurretara eroan dogu orain.

Merkatari txikiak krisiari eta konpetentziari aurre egin guran, Gabonetako salmentetan daukie jomuga. Txikiak izateak, baina, ez dau esan gura indarririk ez daukienik. +Dendak elkarteak 25 urte egin ditu, eta ibilbide horretan bezero kopurua bibidertu egin dau. Elkarlanean bakarrik egin leitekela aurrera ulertu dabe, eta bide horri ekin deustie erronka barriak ezarriz.

Egitarazabala antolatu dau elkarteak urtemugan.

Azaroan zehar, hainbat ekitaldi antolatu dogu umeendako. Artzain Eguna eta merkataritzari buruzko II. Film Laburren Jaialdia be bai. Gabonetan kale animazio ekitaldiak antolatuko doguz, umeen parkeak, pailazoak, musika, txu-txu trenak eta izotz pistarako sarrerak Durangon, Traña-Matienan eta Iurretan.

“Irudi-marka sortu gura dogu Durango eta inguruko herrietan”

Zelan sortu zen + Dendak elkarte orain 25 urte

Durango eta Iurretako 80 merkatarik, sektorearen interesak babesteko helburuagaz, Maristetan batzarra egin ondoren elkarteak sortu eben.

Zer balorazino egiten dozue?

Antolatzen doguzen ekitaldiei jagokenez, merkataritza txikia sustatu eta defendatzeko erizpideari jarraitzen deustagula deritzot. Helburu horregaz, hirigintza lako beste arlo batzuei ekin deustagu, emoten ez dauen arren, merkataritzagaz zeri-kusi haundia daukielako. Esan geinke +Dendakek merkataritza txikia babestu guran alor horretako esparru guztietan diharduela.

Saltoki-gune handiekeragin dabe herrietako merkataritzan?

Fakturazinoan eragin dau, lehenago ez zegoen konpetentzia agertu zelako. Dena dela, zailtasunei aurre eginez merkatarik txikiak beste leku batzuetan baino hobeto eutsi deustso, bi azpisektoreak %50ean bardinduz. Ez daukagu horreen konpetentziaren beldurrik, beti be, baldintza bardinetan jokatzeko badogu. Produktu eta zerbitzu nahikoa daukagu lehiazteko.

Merkatariok administrazioen babesa daukazue?

Administrazioaren laguntza daukagu, baina, batzuetan, ez egokia. Administrazino batzuk animazinoarako neu-

rriekin babesten gaitue, baina horreek beste neurri batzuekin antolatu beharko liriatekez.

Adibideren bat?

+Dendakek azken urtean hirigintza komertzialeko hainbat ekimen proposatu ditu Durangon aparkatzeko espazioak sortzeko, erosketarako orgak eta bezeroendako bizikletak. Ekimen horrekin Durangoko sarren azpiegiturak periferiako merkatalguneen mailan jarri gura doguz. Horixe da eskatzen gabilzen plusa.

Zer egin leiteke sektorea bultzatu gura bada?

Animazinoaz gainera, gure estrategiak hiru ardatz daukaz: hirigintza komertzialeko neurriak ezarri, eskualdeko merkataritzarendako irudi marka sortzea publikoak identifikatzeko eta kosteak optimizatzea konpetitiboagoak iza-

“Hirigintza komertzialari jagokozen neurriak behar doguz”

Merkatariendako txartela eskatu dozue.

Gasteizko Udalak emoten dauena lako txartela eskatu dogu aktibitatearen barruan kotxea izena emonda daukiendako. Gainera, hasierako epea igarota ezin luzatzeak beharrezkoa ez den muga jartzen dau, eta erosketa espontaneoendako oztopo izan leiteke.

Krisiak eragin dau sektorean?

Duda barik, fakturazinoan igartzen da. Daukaguzen datu zehatzak baino, merkatariegandik heltzen jakun pertzepzinoak da. ■ Jone Guenetxea J

katerin ardoak
iñaki uribe

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan
saltsan.com

BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

GRUPO CATALANA OCCIDENTE

Betikoak
flexografia

ofizinarako zigiluak
fotolitoak

Bixente Kapanaga, 9 • 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41

EKONOMIA[>]

> DURANGO

Postuak bermatzeko eskatu dabe Fumbarriko langileek

Duela urte bete baino 40 langile gitxiago dago Fumbarri. Sei hilabetetako EREa hastekotan dira

Laster martxan jartzekotan diren EREaren harira, Fumbarriko langileek hainbat protesta egin ditue egunotan, enpresari lanpostuak bermatzeko konpromisoa eskatzeko. Izan be, azaroaren 3an Fumbarri sei hilabetetako erregulazio txostena aurkeztu eutsen langileei, eta ERE hori aurrera eramateko moduz ez dabe akordiorik lortu. Mobilizazioetan, ordubete eta ordu eta erdiko lanuzteak eta kontzentrazioak egin ditue Durangoko hainbat puntutan.

Azken urtean asko aldatu da Fumbarri enpresaren eta bertako langileen egoera. Momentu hone-

Akordiodun EREa eskatzeko lanuzteak egin ditue azaro amaieran eta abendu hasieran

tan, 90 langile dagoz fundizinoan lanean, orain dela urtebete baino 40 gitxiago.

Erregulazio txostena konstituzio eta negoziatzeko epea amaituta, enpresak txosten bat emon deutso inspektoreari, eta bertan akordiorik ez dela egon zehaztu dau. Langile Batzordeak adierazi dauenez, bere kezka nagusia lanpostuak bermatzea da. Halan be, Fumbarri txostenean jarri dau langileak ez direla arlo



Azoka ondoan elkarretaratzea egin eben Fumbarriko beharginek. Iban Gorriti

Langile Batzordearentzat, soldata kontuen aurretik, lanpostuak ziurtatzeak dauka lehentasuna

ekonomikoagaz ados egon, eta horregaitik ez dela akordiorik lortu. Langile Batzordeak kontraintentzio bat emon deutso inspektoreari, bere bertsinoagaz. Orain erantzunaren zain dagoz.

LABek eta CCOOk eratzten dabe Fumbarriko Langile Batzor-

dea. LABeko delegatu Jon Ugarte adierazi dauenez, negoziazio epean ez dabe soldatei buruz bakarrik berba egin. Euren lehen tasuna lanpostuak bermatzea dela azpimarratu dau: "Lanpostuak ziurtatuta, orduan egingo geunke berba soldaten inguruan". ■ A.U.

> DURANGALDEA

Kiroldegietako langileak, lan hitzarmen barri eske

Abadiño, Elorrio eta Durangoko kiroldegietan greba egin eben hilaren 3an

Joan zen abenduaren 3an mobilizazio eguna izan eben Abadiño, Elorrio eta Durangoko kiroldegietako hainbat langilek. ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek deituta, lanuzteak egin zitueen lan hitzarmen duin bat aldarrikatzeko. Sindikatuek lan hitzarmen barri hainbat aldaketa egitea eskatu dabe; lanaldien orduak gitzitzea, zenbait lanpostu mailak lan-hitzarmenean islatzea eta soldata egokitzea gura dabe.

Kiroldegi eta kirol-zelaietako patronalagaz negoziatzeko galdituta dagozela jakinarazo dabe sindikatuek. 2008an sinatu eben azken lan hitzarmena, eta aldake-

tak egiteko akordio batera heltzea ez dabe oraindino lortu.

Bizkaiko kiroldegi eta kirol-zelaietako langile guztiak egon dira hilaren 3ko grebara deituta. Abadiño kiroldegiko 20 langile inguruk eta Elorrioko zein Durangoko Landako kiroldegiko hainbat langile parte hartu dabe mobilizazioetan. Abadiño kiroldegiak Gipuzkoako eta Arabako langileek akordioa lortuta daukiela azaldu dabe: "Euren antzeko zerbait gura dogu; ez dogu beste munduko ezer eskatzen". Jakinarazo dabeenez, grebaren ondoren ez dabe oraindino patronalaren erantzunik jaso. ■ A.U.

Lanorduak gitzitzea, soldata igitzea eta lanpostu mailak finkatzea eskatu dabe

Gipuzkoa eta Arabako langileek hitzartuta daukiezen baldintzak gura ditue

'Eta nik ere' eta 'Egunon' saridun +Dendaken film laburren lehian

Eguazten honetan +Dendak bere 25. urteurrena ospatzeko jaialdia egin dau. Durangoko Plateruena kafe antzokian. Bertan, merkatarie elkartaren II. Film Labur lehiaketaren irabazleen barri emon eben. Bi izan dira saritutako lanak: Iban Gorriti eta Gaizka Izagirreraren *Eta nik ere* eta Joseba Rodrigeren *Arzaren Egunon*.

Jaialdian, bestalde, orain dela 25 urte elkartea martxan jarri eben merkatarie omenaldia eskaini deutse. Gainera, igaz aurkeztutako 12 kontakizun batzen dituen liburua aurkeztu dabe. Jaialdiagaz merkatarie txikiak bulztatu gura izan ditu +Dendak. Dagoeneko 180 merkatarie dagoz elkartaren barruan.

■ kolaborazioa



Jose Petite
CCOO sindikatua

Inork ez du krisia bere onurarako aprobetxatu behar

Hilabeteak pasa dira eta krisiak oraindik hor dirau, beraz, gure borroka ere bai. Orain, negoziatio kolektiboaren suspertzea gure helburu nagusia da.

Milaka langilek, Euskadin, euren lan baldintzak berriro gabe jarraitzen dute. Ez gaude prest langileen lan baldintzak murriztu edo desagertzen uzteko. Ez dugu nahi euren arau gabeko merkatu politika eta ekonomia espekulatuaren bidez krisia sortu duten horiek orain bertatik ateratzeko aholkuak ematerik.

Horregatik, Madrilen bilduko gara abenduaren 12an, zenbait gauza aldarrikatzeko: hitzarmen negoziatioa desblokeatu eta Espainiako Enpresaburuen Elkartearen Konfederazioari hitzartutakoa bete dezan eskatzeko; langabeentzako babesa indartu eta hobetzea; aberatsek gehiago ordaindu dezaten, zerga sistemaren aldaketa; herri-lan egitasmoen kontrola, udalena eta sindikala; produkzio-eredua aldatzea; ez bakarrik hitzetan, inbertsioa, ekoizpena eta kontsumoa bideratzeko neurriak; inbertsio handiagoa hezkuntza eta prestakuntzan.

Eta aldarrikapen gehiago: langabeziaren aurkako neurriak; Erregulazio Espedientearen kontrola eta deslokazioak ekiditeko neurriak; Multinazionalen alde eginez gero, diru-laguntzak kentzea; lanaren banaketa. 35 ordu astea; 1.000 euroko lanbide arteko gutxienean soldata; mendekotasun legearen garapena; gizarte babesa sendotu eta pentsio sistema publikoa indartzea; finantza sistemak familia eta enpresei kredituak bermatzeko neurriak sustatzea; aurrezki kutxen izaera soziala mantentzea; bankuek ez badituzte gizartearen beharrak asetzen, nazionalizatu egin beharko dira.

Madrilen bilduko gara, abenduaren 12an, hainbat aldarrikapen kalera ateratzeko

KULTURA[>]



DOKUMENTALA > GRABAZIOA

Nepaleko Tamur erreka-aren jaitsiera

Mendebaldeko eta ekialdeko bizimodu eta pentsakerak alderatzera eta istorioak biltzera, Nepalera bidaiatu dute Bideografik ekoiztetxeko Xabier Zabala, Dabid Maeztu eta Carlos Gomezek: Tamur ibaiaren rafting jaitsiera egin eta grabatu dute, dokumentala osatzeko.

Ur Nomade abentura kirolen antolakuntzarako enpresaren arduradun den Txus Ruiz de Eren-txun gidari durangarraren eta Assut izeneko gidari nepaldarren lan egiteko moduen bitartez, mendebaldeko eta ekialdeko gizarteen ikuspuntu desberdinak erakutsi nahi dituzte Durangoko ekoiztetxeko hiru lagunek. Tamur ibaiaren 120 km-ko rafting jaitsiera

egin eta euren hiru kamerekin grabatu dituzte Bideografikekoek.

Guztira, hogeita hamarretik gora grabazio ordu ekarri dituzte; raftinga eta trekinga egiten hartutako irudiak zein ezagututako herri eta herritarrak jaso dituzte irudietan. Nepalen bizitako esperientzia zoragarriari eta bertan egiten diren abentura kirolei buruzko 45 minutu inguruko dokumentala osatuko dute orain.

Lau raft eta 60 zamaketarirekin igarotako egunetan lagun handiak egin dituztela nabarmendu dute, eta bildutako irudi eta soinu erakargarri horiekin Nepaleko esperientzia ikus-entzuleei helaraziko dieten dokumentala osatzea dutela helburu azaldu digute. ■ I.E.

Hogeita hamarretik gora grabazio ordu ekarri dituzte Nepaleko bidaiatik

12 Bertsolari Txapelketako finalaz

Domeka honetan Barakaldoko BECen izango den Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren finalari begirako Gorka Lazkano bertsolariaren aurreikuspenak.



13

Anarirekin, 'Irla izan'

Durangoko Azokan aurkeztu duen laugarren diskoari buruz eta abenduren 18an Plateruenean duen kontzertuari buruz berbaz Anari Alberdirekin.

DANTZA > EMANALDIA

Asturiasko folklorea, Filandon dantza taldearen eskutik

19:00etan Plateruenean izango da bihar, abenduaren 12an, Durangon Folk



Durangoko Kriskitin dantza taldeak antolatzen duen folk jaialdiaren aurtengo edizio-rako, Asturiasko kultur eta dantza tradizioa da gonbidatua. Bihar, abenduaren 12an, ohitura denez Durangoko Plateruenean izango da emanaldia. Oviedoko dantza taldearen eskutiko musika eta dantza, eta, ohitura denez, Kriskitinen ere izango dira biharko emanaldian.

Orain hamar urte sortutako Filandon dantza taldearen eskutik, hain hurbil baina hain ezezagun ere badu-

Oviedoko Filandon dantza taldeak eskainiko digu Asturiasko folklorea

Orain hamar urte Oviedon sortutako taldearen eta Kriskitinen emanaldiak

gun eskualde horretako askotariko dantzak ikusi ahalko ditugu, Plateruenean, bihar: dantza solteen artetik, jotak eta muñeirak egingo dituzte, esaterako, baina baita traidizioko polka, pasodoble eta valsak ere.

Asturiasko Oviedo eskualdeko etnografiaren inguruan Filandon taldeko kideek egindako ikerkuntza lanen emaitza diren jantziak –antzinako grabatuetan islatuta jasotakoak– ekarriko dituzte, eta Asturiasko tradizioan ohikoak diren instrumentuak zein kantakerak. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA



Jose Julian Bakedano
Zinegilea

Irakurtzea gozamen

Asko dira liburuei buruzko aurreiritziak: denbora galtzeko modua direla, aspergarriak direla, esfortzu handia eskatzen dutela eta abar. Egia da, bai, ohiturazkoa behar duela izan irakurtzeak; eta errutina (oso zaila baita noizean behin irakurtzea) eta horren ondoriozko menpekotasuna.

Denborapasa legez hartuta, dagoenik eta biziorik merkeenetarikoa da irakurketa. Tabernarik taberna ibiltzearen prezioarekin, edo zinemarekin, edo antzerkiarekin, edo kontzertuen prezioarekin alderatu dezakegu. Edo futbolarekin. Eta kontuan izan liburu bat irakurtzen hamar ordu ematen ditugula batez beste. Irakurketak ez dauka telebistaren bat-batekotasuna, baina betegarriagoa ere bada, pentsamendua bereizten duelako; barne sentimendu propioak sortzera garamatza. Izaki pentsakor bihurtzen gaitu, eta gure hizkuntza ere aberasten du, gure gogoia eremu ezezagunetara zabalduz.

Irakurketa, autorearekin komunikazio zuzenean ipintzen gaituen gozamen bakartia da. Badago irakurketa arriskutsua dela defendatu duenik (erregimen totalitarioek, elizek...), irakurtzeak norbere kabuz pentsatzea ekartzen duelako, eta masifikazioaren eta balore ofizial eta derrigorrezkoen kontrako delako.

Gizarte lerrotzatearen kontrako tresna balio handikoa da irakurketa: sarritan dibertigarri, eta entretenigarri izaten dena beti.

**Erredakzioan itzulia*

BERTSOLARITZA > TXAPELKETA

Egin porra

Heldu da porra egiteko garaia, ia urteroko moduan Durangoko Liburu eta Disko Azoka amaitu eta bertsolarien finala dator (Bizkaikoa ez denean, Euskal Herrikoa). Azkenean, bista-bistan daukagu egutegian egun handiaren data. Pena izan da, baina, Durangaldetik hiru ordezkari fina-

laren atarian izan doguzen arren, bakarrik lortu dau aurrera egitea.

Domekan jokatu dau Unai Iturriagak Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako bere bosgarren finala. Gasteizen sustotxo hartu bagenduan be, Iruñeko saioan erakutsi eban Egañari txapela kentzeko kandidato bat izan leitekela. Talentu handiko bertsolaria da Unai, eta, azkeneko txapelketan txapeldunorde izan eta gero, seguru nago aurten be hordagoa jotzeko prest joango dela BECera.

Aurkariak ez dira zelan halakoak. Andoni Egaña, egungo txapelduna eta gaur arte inork baino txapel gehiago jantzi dituen zarauztarra, edo Txirritaren odola dakarren Maialen Lujanbio. Zelan ez aitatu Iparraldeko gazte beterano biak, Amets eta Sustrai, edo sarritan perfekzioa urratuz ibiltzen den Aitor Mendiluze, baita sarritan Unai beragaz lagun moduan ikusi dogun Jon Maia –domekan lanak emongo deusazena–, eta ez daigun ahaztu aurten lehenengo aldiz finalera sartu

den Sarriegi bera, azken urteetan finalean egon ez bada be, beti ateetan gelditu da, eta harek be edukiko dau zer esana!

Badaukaz, bai, zazpi faktore kontra, baina Unai lehen esandako talentuaz gain eskarmentua be badauka, eta esan beharrik be ez dago zenbaterainokoa den harek atera leiken freskura edo normahi sorpresan harrapatzeko gaitasuna. Beraz, kandidato bakarra baina sendoa daukagula esan geinke. Nik egin dot neure porra, zuek ez? Zeren zain zagoze!

Gorka Lazkano



Bertsozale Elkarte

MUSIKA > ELKARRIZKETA

“Bi-hiru kanta oso intimoak daude Irla izan disko berrian”



Nagore Legarreta

Durangoko Azokan, Bidehuts-en stand-ean egon da Anari asteburuan, Inoren Ero Ni eta Lisabo taldeetako lagunekin. Autoprodukzioaren bidetik argitaratu duen ‘Irla izan’ disko berria entzule eta zaleei aurrez aurre aurkeztera etorri da. Abenduaren 18an Plateruenean izango dugu zuzenean.

Zelakoa izan da ‘Irla izan’ disko berriaren produkzio lana?

Bidehuts-en gauden taldeetako lagunak elkarlana izan dut diskoa egiterako garaian. Pilo bat miresten ditudan Lisabo eta Inoren Ero Ni-ko lagunak aldamañean izan ditut, ilusio itzelarekin laguntzen: beraiek dira Durangoko Azokarako disko honen biniloa aterako dutenak, esaterako, eta Anari taldearentzako oso opari ederra da hori.

Aurrerantzean ere diskoak kaleratzeko bidea hori dela ikusten duzu?

Disketxeen kontratuetan parte handi bat eskubideetan eta lagatzen duzu, gero bueltan gutxi jasotzeko. Editatzea erraza da, zaila dena diskoa sortzea da, eta hori da niretzako inportanteena.

Zeuk markatutako erritmoan...

Kantek markatzen duten erritmoan, bai. Zeozerk kanta bat egitera bultzatzen naueneko, horixe da momentua. Gainera, nik uste, disko honetako baina tarte luzeagoa izaten dut diskotik diskora, orain arte lau-bost urteko tarte hartu izan dut batetik bestera: *Zebra* argitaratu zenetik hiru urtera egin dugu *Irla izan*. Kantek esaten dute noiz den diskoa prestatzen hasteko unea. Lokalera joan, sortutakoa taldekideei erakutsi eta gustuko badute egiten dugu aurrera.

Letrek hartzen dizute denpora gehien?

Dudarik barik, bai. Parte instrumentala ere egunero lantzen dut, gitarra egunero joaz. Gitarrarekin bilatzen joaten naiz melodia eta erritmoak, eta egin ahala gra-

batzen joaten naiz. Letren bila, baina, aritu egin behar duzu, badakizu hor nonbait behar duela egon. Letrena askoz luzeagoa eta niretzako gogorragoa ere bada. Zenbaitetan, esker txarragoa.

Baina zure entzuleek asko baloratzen dituzte zure letrek.

Bai, nik baietz esango nuke. Hemen, baina, disko baten kritikan pisu gutxien duena da letra; beti esaten dut letren inguruko elkarrizketa askoz sakonagoak egin izan dizkidegela hemendik kanpo. Faltan botatzen dut hori, baina jakitun naiz nire entzuleak letrek engantxatzen dituztela.

“Letraren bila aritu egin behar duzu, badakizu hor nonbait behar duela egon”

Entzuleen esker ona jasotzen duzu.

Horrek betetzen nau. Diskoak erosten dituen eta kontzertuetara etortzen den jendeak esan izan dit; badakit letrak asko baloratzen dituztela. Esan nahi nuena da,

obra bezala analizatzerakoan hemen letrei ez zaiela garrantziarik ematen. Nahiko nuke benetan jakin letrak zer iruditzen zaizkion jendeari.

Zein izan da disko berri hau idaztera bultzatu zaituen irudia?

Habiak diskotik, diskoari jartzen diodan izenburutik hasten naiz tira egiten; hainbat gauza idazten joaten naiz ideia horretatik. Kasu honetan, irlaren irudia da kantak lotzen dituen. *Irla izan* diskoa bakardadearen iruditik –bakardadea, daukan konnotazio negatibotik barik, egoera baten erreflexio moduan– sortua da. Ni puntu baten nagoela, ezker-esku bi eta gora-behera begiratu, eta zer geratu den atzean, zer dagoen aldamañean begiratuta egindakoak dira letrak.

“Tarte instrumental zoragarriak daude ‘Irla izan’ disko honetan”

Harremani buruzko berba asko dago.

Bai, nik uste disko honek badituela bi-hiru kanta oso intimoak; beharbada, sekula ez bezala. Beti esaten dut pertsonala eta autobiografikoa nahasteko joera bat dagoela: nik idazten dudanean da pertsonala, baina horrek ez du zertan autobiografikoa izan behar. Nire letretako guztia autobiografikoa balitz, psikiatriko batetik erantzungo nuke... Ez dago zertan dena gertatua izan, eta esker-erak! Batzuetan gauza kuriosoenak dira autobiografikoak. Hor dago joko. Nik badakit hor zer den joko eta zer ez.

Irlaren iruditik sortzen duzu musika ere?

Ez, musikak denbora luzeagoan joaten dira sortzen. Beti joaten naiz musika egiten; musika sortzea baino, idaztea izaten da gehiago kontzeptu edo ideia nagusi baten ingurukoa.

Anari talde bilakatu duzu.

Zebra diskoarekin uste dut izan zela, kontzertu batean oholtzara atera eta “Gabon, Anari gara” esan nuela, eta hortik aurrera beti esan dut. Kantak bakarrik sortzen ditut, baina, Anari taldearen soinua gehitzen zaie gero. Anarik daukan soinua denona da: *Irla izan*en tarte instrumental zoragarriak daude.

Durangok zer sentsazio?

Habiak kanta lehenengo aldiz Durangon kantatu nuen, diskoa kaleratu aurretik. Durangoko Institutuan nongoen lanean, eta bertako aretoan jo nuen. Gogo handia daukat Durangorako, uste dut kontzertu polita irtengo dela. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

ABENDUAK 11 22:00etan
DEPEDRO
KONTZERTUA. Sarrera: 12-15 euro.

ABENDUAK 12 19:00etan
DURANGON FOLK
Dantza talde gonbidatua: FILANDUN (Asturies)
DANTZA IKUSKIZUNA. Sarrera doan.

ABENDUAK 13 17:30etan
TXIKITXO
Pro-Ismo Cero antzerki taldea
UMEENTZAKO ANTZERKIA. Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

ANBOTOKO MARI ETA ORRAZI GALDUA

Glu Glu Produkzioak (Bilbao)

Abenduak 20 • 18:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburubanda

11-94 601 07 76 Artekale, 14 DURANGO

ALKIMAX

Alquilamos soluciones



Eitua industrigunea, 71C • 48240 BERRIZ (Bizkaia) • 94 682 45 50 • alkimax@alkimax.com

LORAZAINTZA



Belarra mozteko makina (eserlekuarekin)



Hostoentzako haize-makina



Area



Sasiak garbitzeko mailu-makina



Biobirringailua

ERAIKUNTZA



Plataforma jasogailua



Minidumperra



Mini zamagailua



4 x 4 dumperra birakaria eta bere kabuz kargatzekoa



Mini hondeagailua 1.800kg

GARBIKETA



Garbigailuak



Xurgagailuak



Lur-garbigailuak



Kale-garbigailuak

www.alkimax.com

JAIALDIA > PROGRAMAZIOA

Kulturarteko Jardunaldia abenduaren 21a arte

Eguenean, abenduaren 10ean hasi eta 21a arte izango dira askotariko kultur ekitaldiak

Ibarretxe kultur etxean eta BILADI Palestinako zentro kulturalak antolatutako *Mundutik Iurretara* erakusketa da Kulturarteko Jardunaldiaren hitzorduetako bat: Palestinako artisautza lanen eta argazkien erakusketa



da eguenean inauguratu zutena. Asteon zabaldu duten erakusketa zabaldu zuten egun berean, 14 Kilometros bideo foruma izan zen Ibarretxe kultur etxean.

Bestalde, kultur arteko bigarren jardunaldien barruan baina abenduaren 16an, 17:00etan, Ibarretxe kultur etxean izango dira Henna tailerra eta arabiar idazkera saioak ere.

Abenduaren 21ean, Kulturarteko Jardunaldia amaituko den eguenean, iurretargaztetoenei zuzenduriko ekintzak izango dira Maiztegi Herri Eskolan: *Munduko jolasak* umeentzako tailerra izango da abenduaren 21ean, 16:30ean, eta 19:30ean kalejira, Maiztegi herri eskolan hasi eta Iurretako kaleetara. ■ I.E.

ESKULTURA > ERAKUSKETA

Eskultura Lehiaketara aurkeztu diren maketak ikusgai Berrizen

Urtarrilaren 17a arte izango dira I. Eskultura Lehiaketara aurkeztutako 47 lanak kultur etxean ikusgai; berriztarrek gustokoenak hautatu ditzaten

Lehenengoz antolatu duten Eskultura Lehiaketara artistek bidalitako eskultura proposamenen maketak biltzen dituen erakusketa dago urtarrilaren 17a arte Berrizko Kultur Etxean ikusgai.

Azken helburu, berriztarren botoen eta epaimahaiaren oniritziaren galbahea igarota, herrian eskultura berri bat kokatzea du Berrizko I. Eskultura lehiaketak.

Lehiaketaren lehenengo baldintza artistek euren eskultura lanak maketak aurkeztea izan da, eta Berrizko Kultur Etxeko sarre-rako erakusketa aretoa betetzen duten 47 eskultura proposamenek erakusten dute lehenengo deialdiaren arrakasta. Artistek lehiaketan euren egitekoa zena

Urtarrilaren 17an jakingo dugu zer lan gauzatuko den

Lehiaketara aurkeztu dituzten maketak daude erakusketan

egin dute dagoeneko, beraz: Berrizen egiteko pentsatu duten eskulturaren maketak aurkeztu.

Urtarrilaren 17a arte, berriztarrena, herritarrena izango da hurrengo txanda: sarreran ikusgai dauden eskultura lanen maketen artean gustokoenak hautatu dituzte berriztarrek.

Ondoren, espezializatutako epaimahai batek, herritarren aukeraketaren arabera hiru eskultura onenen artean erabakiko du 18.000 euroko diru-saria norentzako izango den.

Urtarrilaren 17an jakingo dugu Berrizko Eskultura Lehiaketaren lehenengo edizioaren irabazlea nor den eta zer eskultura egingo den Berrizen. ■ I.E.

ESKULTURA > ERAKUSKETA

Durangoko Liburu eta Disko Azokaren egunetan gurera hurbiltzen diren guztiei bere lana ezagutzeko aukera emateko helburuz egin zuen joan zen barikuan *Ilirian sortua* izeneko erakusketaren inaugurazioa Durangon bizi den Safet Bijelicek artistak.

Kroazian jaio eta azken urteetan Durangon bizi den Safet Bijelicek harria, zura, burdina eta kristala landuta sortutako piezak daude abenduaren 31 arte Durangoko Museoan bisitagai.

'Ilirian sortua' izeneko bilduma ipini du Safet Bijelicek ikusgai

Askotariko materialak baliatuta egindako eskultura lanak erakusten dituen arren Durangoko Museoan, lanerako lehengai nagusia metala izaten du Bijelicek.

Orain arte, dekorazio dendentan salgai edo ikusgai eduki izan ditu Bijelicek bere piezak, baina bere lanaren alderdi guztiak era-

kusten ditu erakusketa honetan: dekorazio piezak zein urteetan landutako eskultura lanak.

Bere aitaren prozesu sortzailek ikusia eta ondoren bere ikasketetan jasotako kultura hezkuntza zabala duela azaltzen du Bijelicek. Burdingintza ikasi zuen bere herrian, eta lanaren soberakinekin hasi zen esperimendatzen: bere lehenengo eskultura lanak pentsatu eta burutzen.

Naturara gerturatu

Artea, sorkuntza, bakoitzaren barrura eta naturara gerturatze bidea da, irailean *Anbotorekin* izan zuen elkarrizketan adierazi zigunez, Safet Bijelicek. Infinitua den prozesua, bilaketa, materialagaz esperimendatzea du gozagarri, eta eskultura lan baten atzean dagoen kontzeptua eta inspirazioa bilatzea. ■ I.E.

Abenduaren 31 arte Durangoko Museoan izango da ikusgai

Safet Bijelic-en dekoraziorako eskultura lanen erakusketa

Durangoko Museoan ipini ditu egile kroaziarrak bere lanak erakusketan



goizeko 08:00etatik gabeko 21:00etara zabalik

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

{ odontologia orokorra eta espezialitateak }

muruetatorre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulego eta Industria mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta abar

Goietan, 10 - 2.Esk. - ELORRIO
Tfn.: 94 682 09 91

"BODEGUILLA"

TRAÑA-MATIENA
Tfnoa. 94 681 43 85

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

gremioen koordinazioa

urtiaga

Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak
azulejo, zoladura, teila, zeramika, hormigoi
erakusketa, salmenta eta ipintzea

Solaguren kalea, 3 - tel./ faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)

ERITZIA[>]Gutunak  

Gorka Erdoizari

Gurean dena ei da libre. Edozer esan daiteke edonoren kontra, eta trankil asko geratu, gainera. Horixe etorri zitzaidan bat-batean burura Anboto astekarian Gorka Erdoizak idatzirikoa *Boikota Gerediaga elkarteari eta Azokari* gutuna irakurri nuenean.

Esan bezala, egileak boikota aldarrikatzen zuen Gerediaga elkarteak antolatzen duen Euskal Liburu eta Disko Azokaren aurka, baina ez Azokaren antolaketaz edo kudeaketaz bat ez zetorrelako, baizik eta Gerediagak jarrera epela erakusten omen duelako AHTarekiko edo, are okerrago, entzungor egiten duelako edo bestaldera begiratzen duelako.

Baina egileak ez badaki ere, edo gogoratu gura ez badu ere, kontua da gai hau ere izan duela inoiz Gerediagak mintzagai: *AHT Durangaldean zehar*, Astola, ikerketa eta historia. 2007. urtea. Argitaratzailea: Gerediaga Elkarteak.

Edozein modutan, nik dakidanez, Gerediaga Elkarteak euskal kultur ondarea sustatzeaz arduratzen da eta, bereziki, Durangaldeko kultur ondarea biltzea, ikeretzea eta hedatzea du helburu. Beraz, dena delako txalo eta kritiken jomuga aipatutako esparru horren ingurukoa behar du izan, euskal kultura baita Gerediagak goldatzen duen soloa; "asaba zaharren baratza" alegia.

Susmoa dut, aspaldi batetik hona, maizegi ote gabiltzan euskaldunok gure teiltuari harrika, nahiz eta zalantzak ditudan Gorka Erdoiza eta ni teiltupe berean bizi ote garen. Alde guztietatik jasaten ari garen eraso gero eta ugariagoak nahikoa ez, eta orain gertuko iritzi zentzunbako eta mingarriak jasan behar!

Bi hitzetan esanda, ez nator bat Gerediagari egiten zaion salaketarekin, ez baitu ez hankarik ez bururik, eta, gainera, errespetu gutxikoa iruditatu zait, giza-legetik urrun. Hori ez da gure estiloa: be water, my friend!

Nire eskerrona eta animoa Gerediagako adiskideei eta, batez ere, horrenbeste egur gupidagabe eta neurribako jaso duen Nerea Mujika bere presidenteari.

Juan Antonio Atutxa - Abadiño

Durangoko Azokari boikota?

Horixe irakurri neban orain aste biko Anboton (galdera ikurrik barik) Gorka Erdoizak sinatuta. Aspaldi ez dot halako astokeriarik eta mamalakeriarik irakurri/entzun/ikus. Iparra galdu ete dogu, ba?

Zure kritikak, Gorka, Anboto aldizkariari Nere Mujikak egindako adierazpenak ditu oinarri. Eta hain begitandu jat kritika gogor eta iraingarria ze, ez dot lasaiturik hartu zuri erantzun arte, ni neu be jo eta irainduta sentitu naz-eta. Neure iritzian, behintzat, Nere Mujikari egin deusazun kritika neurritz eta lekuz kanpoko izan da. Eta egia esan pena handiz hartu ditut zure berbak. Nere Mujikari egindako elkarrizketa irakurrita baneukan be, barrero irakurri dot, zuk esandakoak hobeto aitu ahal izateko. Baina ez. Zenbat eta gehiago irakurri, orduan eta argiago daukat: zure kritikak ez dauka ez hankarik ez bururik.

Besteak beste, hauxe dino Nerek (justu zeuk leporatzen deusazuna): Durangaldea maite dauela, eta bardin bertako euskara, ondarea, izaera... Horren alde egiten dauela lan... Durangoren kokapena oso lagungarria dela Azokarentzat... A! Eta ordenagailuko pantailan Orozketatik neguan egindako argazki bat daukala. Gainera, dinozu, inongo lotsarik barik egiten dituela adierazpenok. Neuk be halantxik egingo neukez, ba, eta harro-harro, gainera! Benetan, Gorka, ez dakit zelan ikusi dozun ezer txarrik Nereren berbetan.

Beno, Nerek esandako ia guztia AHTarekin lotu dozu, berak eta Gerediaga Elkarteak "munstro" hori (zuk erabilitako berba da, eta horretan zugaz ados nago) bultzatuko balebe moduan. Orain arte ez dot inon ikusi/irakurri/entzun trenaren alde dagoela. Nereri egindako elkarrizketan ez, behintzat! Nahaste-borraste itzela egin dozu, eta gero, gainera, Ezker Abertzalea be aitatu dozu. "Munstroaren" kontra dagoela eta "Durangaldea maite dauela". Jakina! Baina, horrek, zer zerikus dauka Nerek esandako guztiarekin? Hori bai, nik behintzat, argi daukat: Durangoko Azokari boikota egitea (Azokak esan gura dauen dena kontuan hartuta) ez dator bat abertzale izateagaz.

Boikota eginda eta eskatuta, Azokaren eta, azken batean, euskararen alde egindako lan guztia kakatara bota gura dozu. Orain urte batzuk be ika-mika piztu zen Azokaren kartela dela eta ez dala. Ika-mika egotea eta bakotzak bere iritzia plazaratzea ondo dago, denetik atara leitekela zeozer positiboa, baina zuk eskatu dozuna larregikoa da. Eta egin dozun modu iraingarrian eginda, gainera, nekez parkatzekoa. Zure artikularen hasieran dinozu ia urtero hutsik egin barik joan zarela Azokara, eta ezin izan zarenean joan arantzatxo bat gelditu jatzula barruan. Joan bazara, seinalea Azoka egin dena, eta egin bada, Nerek eta bere moduko beste langile fin mordoxka batek Durangoko Azokaren alde gortutza eta arima lan egin dabelako izan da. Ba, benetan esanda, Azokari boikota egin badeutsazu, jakizu lepoa emon deusazuna euskarari, eta azken batean euskal kulturari. Nik neuk, behintzat, ez zaitut faltan bota liburu eta disko artean.

Zuri, Nere, neure animorik eta eskerrik handiena. A! Ordenagailuan daukazu argazki hori gustura ikusiko neuke, ba!

Mikel Azkarraga (Abadiño)

Eta orain zer?

Bost urte pasa dira eskualdeetako hiltegiak ixteko apustu hura egin zenetik. Oñati, Tolosa eta Durangoko hiltegiak itxi egin behar ziren, agintari ekonomiko politikoentzat "inon enkajatzan ez zuten industria bihurtu zirelako hiltegi haiek". Agintari haien ustez ez ziren egokiak, diru aldetik ez ziren errentagarriak, ez ziren... Beste apustu bat egin behar zen. Agintari haien ustez enpresa moderno bat sortu behar zen, EAeko baserriarrei irtenbide globalizatua, konpetitiboa eta aldi berean distribuzio handiei ere erantzuna emango ziena.

Aldi berean, beste batzuek, ordea, eskualdeetako hiltegiak babesten genituen, komertzializatzeko zirkuitu txikian oinarrituak, eta eskualdeetako hiltegi haiek sektorean egiten zuten traktore efektu hura derrigorrezkotzat jotzen genuen kalitateko abeltzaintzari eusteko Euskal Herrian.

Ez baita berdina, hiltegi industrial eta agnostiko batean txahalak hiltzea -non gehienbat agente pribatuek markatzen duten bere funtzionamendua eta norabide komertziala-, edo eskualdeko hiltegi egituratueta hiltzea, merkatuko legeekin bai, baina aldi berean politika eta norabide tinko bat markatzeko izango diren hiltegiatan. Kontuan eduki behar baita komertzializazioa bera, zer hilko dugun eta nola hilko dugun galderei erantzutetik hasten dela.

Erralde hiltegiaren kasuan, derrigorrezko merkatu libre honetan, balore edo asmo batzuk sustatu nahi genituen, elikadura subiranotasunaren kontzeptuari bultzakada bat eman nahi genion. Bagenekien orduko Administrazioak lagundu ez, eta gainera oztopoak jarriko zizkigula bidean, bere apustua beste bat baitzen. Beraz, gure erronka bikoitza zen. Ez Gasteiztik, ez Bilbotik, eta ezta Durangon aginte nagusia dutenengandik ere, ez dugu inongo babesik, elkar ulertzerik eta laguntzarik jaso. Jakina denez, Europar Batasunean lehen sektorean funtzionatu nahi duen enpresa ororentzat, hasieran behintzat, babes politikoa eta laguntza ekonomikoa funtsezkoak baldin badira ere, bagenekien guk ez genuela halakorik izango. Horregatik, gure proiektuak ekonomikoki ere errentagarria izan behar zuen hasieratik. Errentagarria ez bada proiektu bat, ezin duelako jardun merkatuan, eta jarduten ez badu, ezin baitira gauzak aldatu. Eta gu gauzak aldatzeko jaio ginen.

Baina, zergatik garai hartan Administrazioak sinetsi zuen kontzentrazio eta monopolio ekonomiko horretan eta horretarako diru publikoa guztiz xahutu? Zergatik ez zuen apustu egin interes publikoaren eta errentagarritasun ekonomikoaren alde?

Bada, nik uste Administrazioak ez zuela eduki lehen helburu nagusitzat bertako baserriarra babestea. Helburu nagusia makro-enpresa bat sortzea zelakoan nago, eta baserriarra aitzakia besterik ez zela helburu horretarako. Bere proiektuarekin, modelo eta eredu ekonomiko bat babestu nahi izan zuen, hau da, lobbeyek finkatzen duten eredu: beraien merkatuan, beraiek markatutako ildoak jarraitzeko, euskal administrazioak neurriko trajea egin zien euskal baserriar batzuei.

Merkatuko legeek agintzen dute eta okelaren munduan ere bai, eta merkatuko legeak distribuzio enpresek eta elikaduraren inguruan sortutako lobby alimentarioek ezartzen dituztenez, euskaldunok hor ere konpetitiboak izan behar genuen, beraz, egoera horri erantzuna emango zion enpresa euskaldun bat derrigorrezkoa zen merkatuan. Horixe zen Administrazioaren gogoeta. Besteok, iluminatu eta mesias koadrila bat legez geratuko ginen historian. Horixe zen, desberdin pentsatzeagatik, lehen sektoreko sailburuak gutaz zeukan kontzeptua edo pertzepzioa: iluminatu batzuk ginen.

Guk, dena dela, nekazaritzarako eredu ekonomiko berri baten aldeko apustua egin genuen eta, horretarako, derrigorrezkoa ikusten genuen elikaduraren merkatuan arlo publikoak bere lekua izatea. Zeren, hasieratik interes publikoak interes pribatua menpean jarri izan balu, zenbateraino kezkatu beharko ginatke okelaren mundua orain dela urte batzuetatik hona astintzen duten arazoez: anabolizanteak, antibiotikoak, behi eroen gaitza, transgenikoak eta abar? Norbaitek kalkulatu ote dezake diru publikoan zer gastu eragin duen pentsuak egiteko agente pribatuek haragiaren irina erabili izanak? Elikadura ez al da garrantzitsuegia, soilik enpresa pribatuek erregulatuta egon dadin?

Baina EAEn gogoeta ofizialek guztiz norabide kontrajarria eduki dute. Esaterako, hiltegiek ez dutela enpresa publikoak izan behar esan izan dute behin eta berriz. Bestalde, gobernuak eta aldundiek gestionatzen duten diru publikoa berehala pasatu izan da subentzio moduan esku pribatuetara. Hau da, badirudi administrazio publikoak inoiz ez duela politika egiteko asmorik. Ematen du baserriarrek indibidualki egin beharko duela politika, eta berak aldatu eta hobetu beharko duela bere egoera. Administrazioak diru-laguntzak emango baitiz-

Sei hankako mahaia



Jose Luis Zubillaga
Ezker Batua

Open Klubeko trukea onartzeko arrazoiak

Open Klubak eztabaida sortu du Durangoko Udalean, bere instalazio berrietako sotoko igerilekuak direla-eta. Udalak Open Klubarekin lurrak trukatzearan aurka agertu zen Ezker Batua 2006an, Durangok ez zuela partzela truke dirurik galdu behar irizita. Nolanahi ere, joan zen uztailean udalbatzarrak onartutako trukearekin ez da ogerleko publiko bakar bat ere aterako udal kutxatik; Open Klubak partzela bi eman dizkio Udalari bere instalakuntzak zabaltzeko beste baten truke.

Talde politiko batzuek enpresak irregulartasun larriak egin izana argudiatu zuten aurka bozkatzeko, lanak baimenik gabe gauzatu zituela-eta. Hala ere, txosten tekniko batek zehazten du ez zegoela irregulartasunik, baina, Open Klubak lur gehiago behar zuen, eta hortik dator Udalarekiko trukea beharrezkoa izatea.

Gure aldetik, beti defendatu dugu interes orokorra partikularren ginetik; hau da, Udalari ez ziezaiola galera ekonomikorik eragin operazioak. Hori argituta, eta hauxe izan zen uztaileko udalbatzarrean gure jarraera aldatzeko arrazoiak, trukea ahalbidetu beharra zegoela irizti genion, instalakuntzen lanean sortutako lanpostuak arriskuan ez jartzeko.

Orduan eta gaur egun, bizi duguna bezalako krisi egoera batean, erakunde publiko batek eta arduradun publikoek ezin dugula lanpostu bakar bat ere arriskuan jarri uste dugu, aldearantz baizik; gure eskuetan daudden baliabide guztiak jarri behar ditugu posible denean berriak sortu daitezzen.

Bi horiexek dira gure botoaren zentzua aldatzera eroan gaituzten arrazoiak: Udalak dirurik ez galtzea eta Open Klubean lanpostuak mantentzea.

**Erredakzioan itzulia*

gutunak@anboto.org

45 urtez Durangaldearen alde lanean

Gerediaga elkarteak zuzendaritza batzordea, Gorka Erdoiza-k 2009ko azaroaren 27an idatzitako gutunari erantzuna emanez:

1965. urtean Gerediaga elkartea sortu zenetik, gure ardatz nagusiak euskal kultura zabaltzea eta Durangaldeko hainbat arlo bultzatzea izan dira. Urte hauetan guztietan bazkideak, lankideak eta hainbeste lagunok 'Durangaldearen alde lanean' lelopean ekin dugu.

Hamaika gorabehera eta momentu latzen ginetik, gure ilusioa eta ametsekin aurrera egin dugu, eta, zorionez, gaur egun esku artean ditugun proiektuak aurrera doaz, etengabe, jende askoren parte-hartze eta laguntzaz.

Horregatik erantzun nahi dizugu, azaroaren 27an Anboto aste-karian argitaratutako zure gutunarekin ez gaudelako ados. Bate-re ados.

Bertan, elkartearen lehendakari den Nerea Mujikak elkarrizketa batean esandakoak hartu, testuingurutik atera eta zure nahietara erabiltzen dituzu.

Gainera, Abiadura Handiko Trenaren inguruko eztabaidan parte ez hartzea egotzen diguzu. Zentzu horretan, Gerediaga elkarteak 2007an argitaratu zuen Astola aldizkariaren lehenengo alean, AHTak Durangaldean duen eta izango duen eragina aztertzen zen. Bertan, alde eta aurka azaltzen diren taldeei eman genien hitza, eta gure aldetik, irudiekin, AHTak Durangaldean izango duen inpaktoa mahai gainean jarri genuen, bakoitzak bere iritzia sor dezan. Erreportaia sakon horretan agertutako argazki eta muntaiak, hainbat aldarrikapenetan erabili dira.

Bukatzeko, adeitasun guztiz, eskaera bat egingo dizugu: Mesedez, aurrerantzean guregana zuzenean etorri zaitez. Ateak zabalik dituzu.

Gerediaga elkarteak


kio, baina ez baitio lagunduko eredu ekonomiko berri bat sortzen. Beraz, zein izan behar da Administrazioaren politika eredu? Olentzeroren antzera dirua banatzen ibiltzea edota elikagaien lobbyekin inposatutako merkatu eredu honetan enpresa publikoak sortzea, makromerkatu horretan eta bertako araudipean defizitarioa izateko eta beti jokoz kanpo egoteko?

Ez al da posible eredu aldatea? Noski posible dela. Erraldea merkatuko arauekin eta Administrazioaren diru-laguntzarik gabe ibili da eta bai sozialki, bai ekonomikoki, proiektu errentagarria dela esan genezake. Izan ere, merkatu horretan lan egiterakoan geure bidea jorratu dugu, geure eredu. Zergatik erabili eta aplikatu behar dira elikagaien lobbyek jarritako ereduak, legeak? Eta zergatik Administrazioak eredu horiek berberak inposatu nahi ditu? Orduan eta nekazaritza politika publiko urrutia egon, ez al dira enpresa pribatu horiek sarraski gehiago egiten ari? Zeren, zergatik ote dago, bada bestela, gosea munduan?

Okelaren inguruan bi eredu aurkeztu dira EAEn, bata merkatuari begirakoa, bestea gizarteari begirakoa. Batak 6,4 miloi euroko zorra utzi du bidean, eta nahiz eta Administrazioaren laguntza ikaragarriak jaso, baseritar asko ekonomikoki lur jota utzi ditu. Ez du inongo eredurik aurkeztu, zegoena babestu du. Beste eredu, gizarteari begira egindakoa, ez du Erraldek bakarrik babesten eta defendatzen, hor dago adibidez Oñatiko hiltegia eta hango eskualdeko udalek bertako hiltegiarekin egin duten apustua. Gure kasuan egintza lana eta hiru urteko ibilbidea agerian geratu da, agerian geratu den bezalaxe Administrazioak gurekin eduki duen jarrera.

Baten bati ardurak eskatzeko momentua iritsi dela ere esango nuke, eta bide batez gogoeta egingo balu, ez legoke gaizki; norbaitek ideiatu eta aplikatu baitu merkaturaren sarraski hau. Nik, iluminatuen koadrilako kide modura, galdera bat egiten diot neure buruari: eta orain zer? Onartu beharko dugu behingoz gauzak aldatzea posible dela. Baina, hori bai, gauzak aldatzeko derrigorrezko axioma gauzak aldatu nahi izatea da. Bestela, ez baitago zereginik, jakina.

Eneko Egibar Artola (Erralde hiltegiako gerentea)



**Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.**

**Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia
helarazteko helbideak:**

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
2009ko abenduaren 11 - 8. urtea - 355 zk.

Laguntzailea:	Eta honako Udal guztiak:		
	Abadiño	Elorrio	Mallabia
Bizkaiko Foru Aldundia	Atxondo	Garai	Mañaria
	Berriz	Iurreta	Otxandio
	Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria: Jone Guenetxea.
Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazioa: Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.
Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.
Argazkilariak: Iban Gorriti, Ana Dominguez eta Kepa Aginako.

OSASUN GIDA

AKUPUNTURA



MINKENDU

AKUPUNTURA (orratz gabe ere)
ETA MINAREN AURKAKO
TERAPIAK • **HIDROLINFA**

Alberto Murua
Andra Mari, 18 • 48200 DURANGO
tf. 662 270 770

LOGOPEDIA



- Psikologia
- Logopedia
- Psikoterapia
- Fisioterapia
- Bach loreak

ume eta helduentzako


Txibitena, 9A - behea
48200 DURANGO

tf. 94 681 21 00

mug.: 669 612 362

ahozabal_zentrua@yahoo.es

PODOLOGIA



JON GERRIKAETXEBARRIA PENÁ

PODOLOGIA KONTSULTAK:
oinen gaitzak, ortopedia eta zirugia

Ermodo, 2- 1. eskuma
48200 DURANGO

tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA



B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO

tf: 94 681 99 51

FISIOTERAPIA



FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezineustea, traumatologia, kirola, trafiko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

OPTIKA



ZENTRU OPTIKOA

Teknika aintzindariak, kontaktologia, haurren
ikusmena, ikusmen terapia, audiometria.
NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA

Arkaraz, 3
48240 BERRIZ

tf: 94 622 50 99



PABLO ZUBIZARRETA

FISIOTERAPIA
&
OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D
48200 DURANGO

tf: 94 655 00 49 / 695 784 963

PSIKOLOGIA



JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 Durango
jon@psikologo.biz www.psicologo.biz

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52



HIRU FISIOTERAPIA

astehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00

GEHIGARRIA >



84,90€

Wii Fit Plus

+

EROSKI

zurekin ABADIÑO

99,99€

79,99€




HITZ
Liburudenda

Artekale, 14 • DURANGO
Tel.: 94 681 07 76

alberdi estankoa



Zubibitarte, 7
Matiena - Abadiño
Tel.: 94 681 40 33



Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - 48200 Durango
94 620 18 93 - Faxa: 94 681 64 03

Eztingo deutzazu gogoari eutsi!



kontsumatu baldintzak denda.

2x1 telepizza®
Probatu gure pizza gainerrea asteko egun guztietan. (lokalean)

Askatasun etorbidea, 25. Tel.: 94 621 81 86



JOYERIA - RELOJERIA
TABIRA

Barrenkale 15 Tel.: 94 681 42 95 48200 durango

Sartu www.anboto.org-en eta eskuratu Tabira bitxidendaren eskutik erloju zoragarri bat

Bakarrik aurkituko dozuz TABIRA BITXIDENDAN

ADOLFO DOMINGUEZ    

urteurrena aniversario **25**

+dendak
Asoc. de Comerciantes de Durango - Iurretza - Abadiño e Iurretza Dendarien Elkarte

erabili gure txartela eta aprobetxatu dituen abantailak

SYLKE • EROSKI-ALYPROX • TABIRA BIDAIK • URRIKE LIBURUDENDA • ROYUELA DECOR • AMAIA • PIZELI • FOTO ARENTZA • ACUATICA SPORT • GOIEN OINETAKOAK • ANDREU DEKORAZIOA • INSTITUTO OPTICO • SUSI • MURGOITIO OINETAKOAK • ALKI DEKORAZIOA • SNOOPY • OLIVER • GARCIA ARIÑO KIROLAK • MAYBEL • BRIKOETXE • TELEPIZZA • AYERDI • TXANDRA • EKHI STUDIO • MANCISIDOR BITXIDENDA • CONFECCIONES OTERO • NK • TABIRA OINETAKOAK • MAKALLU ETXEA • ARTESANIA UNZUETA • ALLUITZ MOTOR • BOXCALF • CURTIDOS RODRIGUEZ • MISARBE • FARMANATUR • SUMINISTROS ELCAR • OSASUN ETXEA • EGUREN • ARRI • AINTZA REGALOS • HEMEN SHOP • TIEN21 • LANDAKO OPTIKA • QUKOA • PIKOLIN • SERVICE POINT • CALZADOS KATTY • CIEN PIES • GALLASTEGI HARATEGIAK • K&M ILEAK • FOLDER • PASSARELA • FERCY • BARDEZI MUJER-HOMBRE • CALCADOS MAITE • DOROTI • PARAFARMACIA-DIETETICA AMAIA • MAÑARY S.A. • CHILOE • ETXESOFT • ADOLFO DOMINGUEZ • AVIA OTXANDIO • AVIA IZURTZA • SORRISI • PUYSE



eme
elorriko merkatarien elkartea

Zorionak eta urte berri on!
ESKERRIK ASKO
ELORRION
EROSTEAGATIK

URTXINTXA

HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK
Aukera ezazu hemen zure erregalua

UNDARRI BIKE
Bizikleten salmenta eta konponketa,

%30^{ra}
arteko deskontua

BIZIKLETA ETA
BIZIKLETA-URKILATAN

gabon zoriontsuak!

Lehen markak:
Commençal,
Orbea,...
eta beste batzuk.

arropa • oinetakoak • gurpilak • ordezeko piezak
osagarriak • janaria • ...

Bidebarrieta, 5 - bajo
48215 IURRETA
undarrbike@undarrbike.com

94 681 78 08
www.undarrbike.com

**HAUR
BIZIKLETA
UGARI
AUKERANI**

Gabonetan, oparitu maite dituzunei edertasun-produktuak eta zerbitzuak.

Estetika Zentroa
Ana Camarero

Zure neurria egindako opari eta txartelak prestatzen ditugu.

Goienkale, 16 - 1.esk.
Tel.: 94 681 73 80 DURANGO

Gabon hauetan oparitu bidaiak

Iberia bidaien "Elige dónde vas a ir" txartelean deneriko ilusioak sartzen dira

Ametsaketa hondartza...
Eiffel dorrea...
Askatasunaren 1. stalua...
Taj Mahal...

IBERIA BIDAIAK OPARI TXARTELA

Joan-etorriak • Hegaldiak • Alokatzeko autoak
Hoteleko gauak • Balnearioak • Paradoreak...

Argibideak eta erreserbak honako bulegoetan:
Ermodo 22, Durango, 94 620 04 47
Fray Juan de Zumarraga 20, Durango, 94 621 54 00

VIAJES IBERIA
902 108 108
viajesiberia.com

anbotoren egutegia
betiko tokietan **SALGAI!**

3€

EROSKI bidaiak zurekin



Llanes • Asturias



Durangaldeko zein bertsolarik parte hartuko du Euskal Herriko bertsolari txapelketan?

bialdu zure erantzuna ondoko email honetara:
astekaria@anboto.org



AMALURRA[>]



Gabonetako argien kontsumoa txikituko dabe hainbat herritan

Gabonetako argiak gastu handia dira ekonomikoki, eta, gainera, ez dira onak gure ingurumenarentzako

Argi kontsumoa jaisteko asmoz, udal batzuk Gabonetako argien gaineko neurriak hartzen hasi dira

Gabonetako argi bereziek denpora gitxiago emongo dabe isiotuta; argi sistemak be kontrolatuko ditue hainbat udaletan

Gabonetan, ezinbesteko osagai bihurtu dira kaleko argiak. Jendeak, eta batez be hurrek, oso gogoko ditue apaingarri berezi horreek. Donostian dogu horren froga: Udalak aurtentzen argirik ez ipintzea erabaki dau, eta herritar batzuk kalera atera dira protesta egiteko. Baina kontua da, argi horreek gastu bat direla ekonomikoki, eta, gainera, ez direla gure ingurumenarentzako onak. Horregaitik, hainbat udal –tartean Durangaldeko batzuk be bai– Gabonetako argien gaineko neurriak hartzen hasi dira.

Gabonetakoak izan arren, leku askotan abendu hasieratik ikusten dira kaleak argitzen. Herri gehiagotan egin dabe apaingarri horreek ipintzeko apustua, eta lehendik zegoenetan, kaleetan hedatzeko joera egin da. Halan be, eskualdean

badago salbuespenik; herri guztiak ez dira atontzen argiekin.

LED teknologia

Durango 2007an hasi ziren aurrezteko politikagaz, Agenda 21eko azterketak egin ondoren. Klima Aldaketaren Aurkako Programaren baitan hartu eben erabakia, beste bi neurrigaz batera: semaforoetan LED teknologia ezartzea eta kaleko argietan erreduktoreak jartzea.

Aurtengo Gabonetan argi guztiak LED motakoak izango dira, eta egunean denpora gitxiagoan egongo dira funtzionatzen. Isiotu, igaz bezala, 18:00etan egingo ditue, baina amatatu 03:30ean, goizeko 06:00etan beharrean. Igaz 78 puntu argizatu ziren; aurtentzen 56. 2007ko datuekin alderatuz, "16.682 kwh gitxiago gastatuko

dira, eta CO2 isurketak be 8.000 kg jaitsi dira ordutik", udal ordezkarien arabera.

Lurretan, bestalde, igazko argiak berrerabiliko ditue, eta 3.000 euro bakarrik gastatuko ditue Bixente Kapanaga kaleko argi barriak alokatzeko. Lurretako Udalak be LED motakoan aldeko apustua egiten dau. Aurtentzen geroago isiotu ditue argiak, gaur bertan, hain zuzen be.

Elorri herriko erdigunean bakarrik ipini ditue, eta abenduko lehenengo aste bietan asteburuetan baino ez ditue isiotu. Berrizen be Urtiaga plazan ez ditue ipiniko, alkatearen berbertan "urtero kontu handiz ibili" arren. Abadiñon, kontsumo baxuko bonbilen alde egin dabe, eta Atxondon "urteroko printzipioari jarraituz, neurrian ipiniko ditue", alkateak dinenez.

AGENDA >

>ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Azaroaren 11n, 12an eta 13an BARRE ERAGIN GURAN

Ama ezkonbako, seme ederregia eta emazte neurotikoa aurkeztuko ditu Txalo Produzioak, asteburuan, inguruko antzokietan: *Las vacaciones de Josefa*. Ikusleari barre eragitea helburu hartuta, muga bako zenbait egoera ekarriko ditu ohoitzara Dany Laurentek sortu eta Jaime Azpilikuetak egokitu eta zuzendutako komedia gozo eta samur honek, antzezle talde ezaguna batuz: Belinda Washington, Carlos Lozano eta Maria Luisa Merlo.

abenduko agenda

Abenduak 12-13-19-20-25-26-27-31 • Iurreta Txirindulari Elkarteak 10:00etan. Ibilbide ezberdinak.

Abenduak 15-16-18-30 • Iurretako Herri Biblioteka
15an, 17:30 Bularretik mintzora hezitzaileentzat / 19:00 Irakurleen txokoa gaztelaraz
16an, 17:00-17:45 Haurrentzako (8-10 urte) / 18:00-18:45 Haurrentzako (10-12 urte) / 19:00 Irakurleen txokoa euskeraz
18an, 17:30-18:30 Haurrentzako (3-6 urte) / 20:00 Nagusien ipuin kontalaria
30ean, Ipuin kontalaria. 11:30 (3-4 urte) / 12:00 (5 urtetik gorakoak)

Abenduak 16-21 • Gizarte Ongizatea
16an, "Mundutik Iurretara" 17:00 Henna, Arabiar idazkera eta Arabiar dantzen tailerra
21ean, "Mundutik Iurretara" 16:30 Umeentzako tailerrak, Produktu tipikoen dastaketa
19:30 Kalejira eta animazioa Maiztegitik Herri eskolara

Azaroak 16-17-18-19-22 • Goiuriko Ama Elkarteak
16an, 17:00 Hitzaldia "Cuando dormir nos preocupa ¿que podemos hacer?"
17an, 17:00 Bingo berezia eta merienda bazkideentzako
18an, 17:00 Antzezlan "El mirador"
19an, 13:00 Meza San Migel parrokian. Bazkide nagusiei omenaldia
22an, 17:00 Bingo berezia

IURRETAKO UDALA



ABENDUA

BERRIZKO UDALA

Abenduak 11

Antzerkia: "En ocasiones veo armarios". Kultur etxea. 22:00.

Abenduak 13

Filmea: "Malditos Bastardos". Kultur Etxea. 19:00

Abenduak 16

Hitzaldia (nagusien jardunaldiak): "Zoriontasuna". Hizlaria: Eva Perez de Albeniz. Jubilatuen Etxean, 17:30.

Abenduak 17

Tailerra (nagusien jardunaldiak): "emozio baikorrak". Jubilatuen Etxean, 17:30

Abenduak 18

• Bisita: Bilboko Arte Ederretako Museoko "El joven Murillo" erakusketa.
• Haur antzerkia: "Olentzero eta edabe magikoa". Kultur etxea. 17:30.

Abenduak 20

Filmea: "Cuento de Navidad". Kultur Etxea. 17:00

Abenduak 24

Olentzero eguna. Goizez auzoz auzo. Arratsaldean, Elizondotik Olakuetara

Abenduak 27

Filmea: "Millennium 2". Kultur Etxea. 19:00

Erakusketak

Berrizko I. Eskultura Lehiaketara aurkeztutako lanak

Elurretara irteera

Abenduaren 26tik 29ra Baqueirara. Bidaia, ostatua, gosaria, erremontek eta aseguruia 270 eurotan. Abenduaren 18ra orduko eman behar da izena.

OHARRAK

Berrizburu kiroldegian urtarrilaren 4ean hasiko dira urte berriko ikastaroak. Izena emateko epea abenduaren 19an amaituko da.

ANTZERKIA

BERRIZ

» 'En ocasiones veo armarios' (Las Grotesques), abenduaren 11n, 22:00etan, Kultur Etxean.



» 'Olentzero eta edabe magikoa' (Deabru Beltzak eta Portal 71), hilaren 18an, 17:30ean

DURANGO

» 'Txikitxo' (Pro-Isma Cero), abenduaren 13an, 17:30ean, Plateruenean. 'Klownstrofobia mendian' (Zurumurru), 20an.

» 'Las vacaciones de Josefa' (Txalo Produzioak), abenduaren 13an, 19:00etan, San Agustin kulturgunean. 'Anbotoko Mari eta orrazi galdua' (Glu Glu Produzioak), 20an, 18:00etan.

ELORRIO

» 'Las vacaciones de Josefa' (Txalo), abenduaren 11n, 22:00etan, Arriolan. 'El Mirador' (Gora Ta Gora), 17an, 17:30ean.

ERMUA

» 'Secando charcos' (Agerre Teatro), abenduaren 11n, 22:15ean, Lobiano kulturgunean. 'Bodas de sangre' (Trake), 12an, 20:00etan.

ZALDIBAR

» 'Irrien lagunak' (Pirritx eta Porrotx), abenduaren 22an, 17:00etan eta 19:15ean, Olazarren.



ZORNOTZA

» 'Las vacaciones de Josefa' (Txalo), abenduaren 12an, 20:00etan, Zornotza Aretoan. 'Arizona' (Mutis Producciones), abenduaren 18an, 21:00etan.



BERBALDIA

ABADIÑO

» Sexualitatea eta emakumea: 'Salud sexual', abenduaren 16an, 18:00etan, Errotan. Hiru egun aurretik eskatuta, haurtzaindegia eskainiko dabe (94 681 87 74).

DURANGO

» 'Haurraren beharrak hazten doazen heinean: loa, elikadura...' (Esnearen Liga), abenduaren 14an, 18:00etan, Andragunean.

BESTEAK

DURANGALDEA

» Bilboko Arte Ederren Museora bisita, abenduaren 18an. Zaldibar, Garai, Otxandio, Izurtza, Mañaria eta Traña-Matienako (Abadiño) herritarrei zuzenduta. Durangaldeko Mankomunitateko Pertsona Adinduen Sailak erata. (94 620 05 46 / 94 620 18 60).

DURANGO

» Gabon kanten jaialdia, abenduaren 19an, 18:00etan, San Agustin kulturgunean. Palentziako zentroak erata.

» Kontuleku, abenduaren 19a artean, zapaturo, Liburutegian: 11:00etan (0-3 urte) eta 12:30ean (4-6 urte). Izena emotea bertan (94 603 00 41 / liburutegia@durango-udala.net).

ELORRIO

» Gabonetako jaialdia, abenduaren 20an, 12:00etan, Arriolan. Kainaberak erata. Ziklo-kross lasterketa, 09:30ean, San Josetik.

» Santo Tomas azoka, abenduaren 22an, 10:30ean, plazan.

IURRETA

» 'Mundutik Iurretara': Henna eta arabiar idazkera tailerrak eta arabiar dantzak, abenduaren 16an, 17:00etan, Ibarretxe kultur etxean. Umeendako jolasak, 21ean, 16:30ean, Maiztegi eskolan. Kalejira eta animazioa 19:30ean.

» Abenduak koplen entsegua, abenduaren 17 eta 22an, 20:30ean, Goiuria kulturgunean. Mikel Deunak erata. Etxez etxe abestuko dabe, 23an, 10:00etan eta 16:30ean, Aita San Migel plazatik.

» Goiuriko Ama elkartearen XVIII. Kultur Astea: 'Cuando dormir nos preocupa ¿que podemos hacer?' berbaldia, abenduaren 16an, 17:00etan; 17an, bingo berezia eta askaria. Hilaren 18an, 'El Mirador' antzerkia (Gora Ta Gora), eta, 19an, 13:00etan, meza San Migel elizan; bazkide nagusiei omenaldia be bai. Anai-arte bazkaria, musika eta dantzaldia, 14:00etan, Nagusien egoitzan.

ZALDIBAR

» Gazteleku (12-16 urte), abenduaren 11tik 13ra, eta 19tik 21era, 16:00etatik 20:00etara. Zapatublai, hilaren 12 eta 19an, 16:00etatik 19:00etara. Mendi irteera: Iiso (564m) hilaren 13an, 08:00etan, Udaletxeko plazatik.

DANTZA

DURANGO

» Durangon Folk: Filandon



(Asturias) + Kriskitin (Durango), abenduaren 12an, 19:00etan, Plateruenean. Kriskitinek erata.

DEIAK

DURANGO

» Genero biolentziaren aurkako elkarretaratzea. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Plataforma Feministak deituta.

» Abenduak dantza bazkaria, 'Fasio oroituz', hilaren 19an, 14:30ean, Plateruenean; 30 euro: BBK: 2095-0233-10-9109943783.

» Odola emoteko aukera, eguenero, 16:30etik 21:00etara, Anbulatorio Zaharrean. Mugarra odol-emaile elkarteak deituta.

ERAKUSKETA

BERRIZ

» Berrizko I. Eskultura Lehiaketako lanak. Urtarrilaren 17a bitartean, Kultur Etxean. Berrizko Argazki lehiaketako lanak, abenduan.

DURANGO

» 'Ilirian sortu'. Safet Bijelic. Hilaren 31 bitartean, Arte eta Historia Museon.



ZORNOTZA

» 'Impresiones'. Esteban Cabrito. abenduaren 12a arte, Zelaieta zentroan. 'Por narices'. La Caixa. Hilaren 15etik urtarrilaren 15era.

IKASTAROAK

ABADIÑO

» Aitei zuzendutako afektibitate eta

haurrendako masaje ikastaroa, urtarrilean. Aurkezpena abenduaren 16an, 19:00etan, Errotan. Izena emoteko, bertan eta Txanportan.

DURANGO

- » **Euskal Dantzak**. Martitzenero, 19:30etik 21:00etara, AIKO taldearen eskutik, Plateruenean.
- » **Olentzerok jostailuak zentuz aukeratzeko aholkuak**, hilaren 19an, 18:30etik 20:00etara, Ludotekan.
- » **Patinaje ikastaroak: hastapena eta maila aurreratua**, abenduaren 22tik urtarrilaren 6a artean, Izotz Gunean. Izena emoteko hilaren 21a arte Pinondo Etxean; gero, izotz pistan.

IPUINAK

ABADIÑO

- » **Ipuin kontalaria**, abenduaren 17an, 17:30ean, Txanporta kultur etxean.

IURRETA

- » **Miriam Mendoza ipuin kontalaria**, abenduaren 11n, Liburutegian: 17:30ean (3-4 urte) eta 18:00etan (5 urtetik gora). **Luciano Federiko (Italia): 'Humor al dente'**, 18an, 20:00etan.

ZALDIBAR

- » **Ipuin kontalaria**, abenduaren 18an, 18:00etan, Liburutegian.

POESIA

DURANGO

- » **'Komuneko paperean idatzitako poemen errezitaldia'** (Imanol & Mattin Epelde), abenduaren 16an, 20:00etan, Plateruenean.

LEHIAKETA

IURRETA

- » **Gabonetako Postal Lehiaketa eta**

Olentzerori Gutun Lehiaketa. Azken eguna abenduaren 24a, Ibarretxan edo +Dendak-en egoitzan —izen-abizenak, adina eta telefonoagaz—. Iurretako edo bertan ikasten daberen 13 urte artekoek zuzenduta. Saria: +Dendak-en opari txartelak, 90, 60 eta 30 eurokoak (atal bakotxean).

- » **Erakustoki Lehiaketa**, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduei zuzenduta. Izena emotea, hilaren 18a arte (94 681 81 42 / 94 620 03 42). Sariak: 1.a 150 euroko erosketaxartela; 2.a 75eurokoa.

MUSIKA

DURANGO

- » **'Depedro'**, abenduaren 11n, 22:00etan, Plateruenean. **Anarik Irla izan** diskoa aurkeztuko dau abenduaren 18an.

» **Sweet Billy Pilgrim**, abenduaren 17an, 21:30ean, Plateruenean.

- » **Gabon kontzertuak**, hilaren 21 eta 22an, Bartolome Ertzilla eskolako aretoan: 18:00etan eta 19:00etan.

ERMUA

- » **Alboka musika eskolako ikasleak**, abenduaren 16 eta 17an, 19:30ean, Lobiano kulturunean. **Big Mama Montse BluesLab3 (Katalunia)**, 19an, 20:00etan.

ELORRIO

- » **Memo Gonzalez & The Bluecasters**, hilaren 19an, 22:30ean, Ateneoan.

IURRETA

- » **Gabon kontzertua: Tabira musika**



banda + Iurretako Koroa, hilaren 19an, 19:45ean, Aita San Migel parrokan.

ZORNOTZA

- » **Big Mama Montse BluesLab3 (Katalunia)**, abenduaren 17an, 20:30ean, Zelaieta zentroan.

ZINEKLUBA

ABADIÑO

- » **Umeentzat: 'Ice Age 2'**, abenduaren 18an, 18:30ean, Txanporta kultur etxean.

DURANGO

- » **'Paris'**, abenduaren 17an, 20:30ean, Zugaza zinemari.

ZORNOTZA

- » **'Despedidas'**, abenduaren 15ean, 20:00etan, Zornotza Aretoan.



Abenduaren 11n, 22:00etan

JAIRO ZAVALAREN 'DEPEDRO', PLATERUENEAN

Jairo Zavala abeslari eta gitarra-jotzailea etorriko da, gaur, Durangoko Plateruena kafe antzokira, eta 'Depedro' bere lanik pertsonalena eskainiko dau. Arizonan (AEB) grabatu eban lan hori 2007an, eta Calexico banda izan eban lagun. Rumba, afrikako musika, sustrai latinodun doinuak, salsa, reggaea, bluesa... ditue oinarri artista honen abestiek. Amparanoia taldeko zuzeneko eta diskoetan parte hartu ohi dau Jairok. Beste alde batetik, abenduaren 18an, Platerueneko oholtza aprobetxatuko dau Anarik 'Irla izan' disko barria aurkezteko.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza
Amelia
 Zuzendaria: Mira Nair
 zapatua 12: 22:30
 domeka 13: 19:30 / 22:30
 astelehena 14: 22:00
 martitzena 15: 20:00



Milenium 2: La chica que soñaba con una cerilla y un bidon de gasolina
 Zuzendaria: Daniel Alfredson
 barikua 11: 22:00

Lluvia de albondigas (3D)
 barikua 11: 19:00
 zapatua 12: 17:00 / 19:30
 domeka 13: 17:00
 astelehena 14: 19:00

ELORRIO

Arriola antzokia
Siempre a tu lado. Hachiko
 Zuzendaria: Lasse Hallström
 zapatua 12: 22:30
 domeka 13: 20:00
 astelehena 14: 20:00



Umeendako zinema
Kika superbruja y el libro de echizos
 domeka 13: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza aretoa
500 dias juntos
 Zuzendaria: Marc Webb
 domeka 13: 20:00
 astelehena 14: 20:00



Umeendako zinema
G-Force
 domeka 13: 17:30

BOTIKAK

- Barikua, 11**
 09:00-09:00
 • Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
Zapatua, 12
 09:00-09:00
 • Navarro (Artekale 6 - Durango)
 09:00-13:30 (*14:00)
 • Campillo / San Roma / De Diego / Balenciaga / Sagastizabal / Unamunzaga (Durango)
 • Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
 • Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
 • Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)*
 09:00-22:00
 • Eguren, Cristina (Trañabarren 15 - Matiena)
Domeka, 13
 09:00-09:00
 • Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
Astelehena, 14
 09:00-09:00
 • De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
 09:00-22:00
 • Eguren, Isabel (Torresolo 4 - Abadiño)
Martitzena, 15
 09:00-09:00
 • Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
Eguaztena, 16
 09:00-09:00
 • Campillo (Montebideo 24 - Durango)
Eguena, 17
 09:00-09:00
 • Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
 09:00-22:00
 • Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak112	UDALAK
DYA94 620 28 00	Abadiño94 621 55 30
Gurutze Gorria94 681 09 49	Atxondo94 682 10 09
Osakidetza94 600 72 00	Berriz94 682 45 84
Ertzaintza94 466 93 00	Durango94 603 00 00
Suhiltzaileak112	Elorrio94 658 27 12
GARRAIOAK	Garai94 681 63 93
Euskotren902 54 32 10	Iurreta94 620 12 00
Durango94 681 02 32	Izurtza94 681 35 48
Bizkaibus94 448 40 80	Mallabia943 17 14 61
Pesa902 10 12 10	Mañaria94 681 89 98
Continental Auto945 286 466	Otxandio945 45 00 20
TAXIAK	Zaldibar94 682 70 16
Abadiño946 814 470	UDALTZAINGOA
Matiena606 459 988	Abadiño94 621 55 33
Durango Geltokia.....946 811 001	Berriz94 682 40 36
Goco Tour946 202 860	Durango94 603 00 10
Tele Taxi944 102 121	Elorrio94 682 02 18
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026	Iurreta94 620 08 88
Elorrio Geltokia946 820 040	BESTELAKOAK
J.L. Uriarte670 402 002	Arriola94 658 31 92
I. Estebez670 678 273	San Agustin94 603 00 21
M Galeano.....946 582 854	Zornotza Aretoa94 630 01 68
Iurreta946 201 565	Gaszte informazioa 94 603 00 30
Taxi auzunea688 618 690	

Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuegoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51
KIROLDEGIAK
Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

10	14°	BARIKUA	
Giro eguzkitsua eta eguerdi partean tenperatura atseginak. Goizaldean, lainoen babesik ez dago fresko egingo dau. Lehenengo orduetan lainoguneak sortuko dira, baina eguzkia gailenduko da.			
4	17°	ZAPATUA	
Eguzkia ikusi arren, tenperatura nabarmen jaitsiko da. Zerua garbi mantenduko da egun osoan, baina eguzkipean ibili arren, ipar-ekialdeko haize hotzak ez deitso eguzkiari giroa gozatzen itziko.			
1	7°	DOMEKA	
1	9°	ASTELEHENA	
9	12°	MARTITZENA	



B A U T I S T A
MUEBLES Y DECORACIÓN

LLODIO - ABADIÑO

*Bautistan daukazuz
gabon-opariak*

Jai Zoriontsuak

KIROLAK >



Kepa Aginako

Olazar final atarian

Eguenean bigarren finalerdiak jokatuko dituzte; finalak urtezahar gauean jokatuko dira

Azken txanpan sartuta dago XXII. Olazar Pilota Txapelketa. Atzo gauean lehenengo finalerdiak jokatu zituzten. Urtezahar gaueko finaleko protagonisten zerrenda datorren egueneko partiduek osatuko dute.

Hilaren 17ko finalerdietan Jaunarena eta Albizu neurtuko dira lau t'erdian, finalerako pasearen bila. Albizuk behetik ekin dio txapelketari, eta nahiko erraz iritsi da final atarira. Final zortzirenetan 22-11 kanporatu zuen Epelde, eta final-laurdenetan ere ez zuen arazo handirik izan Azpiri elorriarrari irabazteko (22-8). Jaunarenak Mendinueta 22-10 menderatuta lortu zuen finalerdietarako txartela. Hasieran paretsu ibili ziren pilotari

biak, baina partidu erditik aurrera Jon Jaunarena jaun eta jabe izan zen. Sakez min handia egin zuen, eta batetik bestera mugitu zuen arabarra. Datorren eguenean partidu estua itxaroten dugu, baina Jaunarena da faborito. Oraintsu, Nafarroako 22 urtez Azpiko Buruz Buruzko Txapelketa irabazi du, esaterako.

Binaka, eskualdeko ordezkari bat izango dugu: Iñaki Larrinaga elorriarra. Idoategaz bikotea osatuz, Onsaloren eta Galarragaren kontra jokatu du. Batzuek zein besteek nagusitasun argia erakutsi zuten final-laurdenetan. Idoatek eta Larrinagak 22-9 irabazi zieten Larrañagari eta Loiolari. Markagailuak islatzen duenaren kontra,

zaleek partidu polita ikusi zuten, batez ere, Idoatek eta Larrañagak aurrean erabilitako tikitakarengatik. Atzean, ordea, gogor zigortu zuten Loiola, eta irabazleek modu horretara desorekatu zuten balantza.

Onsalok eta Galarragak azken honen zartako latzetan oinarritu zuten garaipena, Rico eta Keraltan kontra (22-12). Partidu erditik aurrera Galarragak indarraren legea ezarri zuen. Finalerdietan Larrinaga eta Idoate dira faborito. Elorriarrak Aspegaz debutatuko du urtarrilean, eta Idoate ere Aspegoko pilotaria izango da aurki.

Atzoko finalerdietako emaitzak www.anboto.org webgunean ikusgai daude. ■ J.D.

ZELULOSAZKO ONTZIAK
BIODEGRADAGARRIAK
ETA
BIRZIKLAGARRIAK

Autonomia, 2 - ATXONDO (Bizkaia)
tel.: 94 623 17 17 Faxa: 94 623 17 99

CEMOSA
CELULOSAS MOLDEADAS, S.A.

Lehenengo Durango Uria Nazioarteko Judo Txapelketa

Durango Judo taldearen ekimenak 300 judoka bilduko ditu



Urtean zehar hainbat txapelketatan parte hartzen dute Durangoko Judo Taldekoek.

Durangoko Judo Taldeak, kirol hau bultzatu guran, hainbat ekimen antolatzen dihardu. Oraingo honetan, Durango Uria Nazioarteko Judo Txapelketaren lehenengo edizioa antolatuko dute, abenduaren 20an, Landako kiroldegian. Antolatzaileek aurreratu digutenez, 300 gazte batzea aurreikusi dute. Frantzia, Girona, Zaragoza, Palentzia, Errioxa, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako judokak nor baino nor lehiatuko dira Landakoko tatami gainean. Kategoria eta pisuaren arabera, goizeko 10:00etatik aurrera ekingo diote txapelketari 9-14 urte arteko gazteek. Lehenengo benjaminen txanda izango da, eta ondoren alebin eta infantilena.

Goizeko 10:00etatik aurrera ekingo diote txapelketari, Landako Kiroldegian

Bizkaian antolatzen den nazioarteko txapelketa bakarra da Durangokoa

Judo munduko izen ezagunak be Durangon izango dira. Uematsu eta Yahaira, nazioarteko txapelketatan parte hartzen duten judokak, esate baterako.

Iñaki Salas Durangoko Judo Taldeko arduradunaren berbatan, "konpetizioa bultzatzea baino, helburua gazteek kirola lagun arteko giroan egitea da". Filosofia horri jarraituz, parte-hartzaile guztiei oroigarriak banatuko dizkiete.

Bizkaian, bakarra

Bizkaian judo arloan antolatzen den nazioarteko txapelketa bakarra dela nabarmendu dute antolatzaileek. Federazioak ez diela lagundu ere gaineratu dute. "Babesle pribatu eta publikoei atea jo behar izan diegu txapelketa martxan jarri ahal izateko", azaldu digute taldekideek. Enpresen eta Udalaren laguntzarekin "pozik" agertu dira txapelketaren bultzatzaileak. ■ J.G.

300eko finala urrats batera dauka Abadiñok

Lehenengo jardunaldian hartutako aldeari eustea aski du Abadiñok bihar Oartzunen

300 kilora arteko finalera sailkatzeko bigarren eta azken jardunaldia jokatu du Abadiñok, bihar, Oartzunen. Multz bitan banatuta, 12 talde dabilta lehian. Zeberioko lehenengo jardunaldian abadiñarrak hirugarren izan ziren, eta bihar postu horri eustea nahikoa dute hilaren 20an Arrigorriagan jokatu den finalera sailkatzeko.

Zeberion Amaiur izan zen lehenengo, zazpi punturekin, eta Berriozar bigarren, seirekin. Abadiñok bi horien kontrako lehiak galdu zituen, eta beste guztiak irabazi: Sokarri, Ñapu-

rrak eta Barrundiaren kontrakoak. Orain puntu biko aldea ateratzen diete hiru talde horiei, eta abantaila polita da biharko jardunaldiari begira.

Abadiñok -300 kilora artekoan talde bakarra du- lan ona osatu zuen Zeberion, eta lehen bien kontra galdu arren, "oso tiraldi parekatuak" izan zirela azpimarratu du Edu Mendizabal entrenatzaileak.

Orain asteburu bi 320 kilora arteko finala -denboraldiko lehenengoa- jokatu zuten Abadiñoko probalekuan, eta irabazi egin zuten. ■ J.D.

Agustin Alkorta •
Futbol entrenatzailea



Lehenengo sentsazioak

Gabon atarian gagoz eta gure taldeei buruz hitz egiteko momentua da, lehenengo sentsazioak aipatuz.

Hasteko, Kulturala: taldeari aldaketa sakona egin deusie, entrenatzaile barria be fitxatuz. Argi dago apostu handia izan dela baina emaitzek arrazoia emon deuse arduradunei, eta Tabirara hurreraten direnek handik gustura irteten dabela dinoe. Bere atea zaindu egin behar dau, gol gehiegi jasotzen dauelako, eta hori betidanik izan da euren ezaugarri bat: defentsako lanetik hasten da taldea eraikitzen.

Bigarren, Berriz: izenez izen esan daiteke igaz baino talde hobea dela, baina emaitzak eskasagoak dira. Zergatik? Denboraldi bokatxa desberdina izaten delako; ez dago besterik. Etxetik ezin dabe alde egin puntu gehiagok. Horretan saiatu behar dira.

Jarraian, lurreta: helburua igotzea izan behar da, kontuan edukita azkeneko denboraldiak. Pare bat estropezu eduki ditue, inportantzia bakoak, baina bigarren buelta txukunak egiten ditue beti.

Ondoren, Zaldua: toki larrietatik hur dabil, igazko emaitzak ikusita. Etxetik kanpo asko bajatzen dira, eta bi emaitza on lotutakoan gorantz joango dira.

Eta Elorriori buruz, zer esan: ia igazko martxa daramate, eta hor goian egoteak ez deuse ondoezik eragingo, hori seguru.

Besteei buruz: Abadiñok, Ezkurdik eta Extremeñok berreskuratu egin behar ditue euren lehenengo mailak, ahalik eta arinen. Filialena beste kontu bat da.

Denei opa deuset urtea ondo amaitzea, eta hurrengoa hobeto hastea.

Adituarentxokoa

Lurretako-Zaldua eta Berriz-Elorrio futbol derbiak

Asteburuan Durangaldeko derbi bi izango ditugu futbole-an. Lurretakok lehen erregionaleko goiko postuetan finkatzeko asmoz hartuko du Zaldua Larrakozelain. Díezen mutilak hobeto dabilta etxetik kanpora aurtin; kanpoan ez dute oraindik partidurik galdu. Zaldibartarrek, aldiz, lehia bat irabazi dute etxetik kanpora eta beste guztiak galdu dituzte.

Berrizburun Berriz B eta Elorrio B lehiatuko dira. Berriztarrak laugarren daude, bigarrenarengandik gertu. Elorrio sailkapenaren erdian dago.


Bolada onagaz segitu gura du Tabirakok

